

Igandean, goizaldeko hiruretan, ordu aldaketa egingoda



Gaur Super-heroiak antzezlanaren irurtzunen; Bigotes Band Olatzagutian eta, bihar, La gloria de mi madre Altsasun



Kultura >> 14



## Uzta ona arkeologi indusketan

>> 9

Bihar, larunbatean, 17:00etan, ate irekiak jardunaldia izanen da Zamartzen. Aztarnategira bisita eta egindako lanen aurkezpena.

Euskararen super-heroiak Mintzakiden bilduta >> 7

Baleontzia egiteko bi sakandar kontratatzerak >> 7

Murgiondo, zilarrezko domina >> 12



LOMCEren kontrako protestekin segitzen dute hezkuntzan >> 7

Gaur erabakiko dute doktrina aplikatu zaienen inguruan >> 5


Saldutakoa saltzera etorri zen Esparza kontseilaria >> 5



Sakanako XIII. Herri Krosa bihar Etxarrin >> 11



Parkinson gaixoendako fisioterapia saioak >> 7



Martina, Nafarroako film labur onena >> 14

Basogintza Sakanan liburua

ESKANTZA BEREZIA

12€

Bazkideek: 10€

Fon plaza 23, Altsasu

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu  
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



## Aintzane Bengoetxea Garisoain

ZORIONAK potxola!! Triki-trixa jotzen duzuean, etxean beti jai!! Eta dantzan zabilzanean, zer esanik ez!! Bikain pasa zure 11. urtebetetzean. Muxu asko.



## Saioa

ZORIONAK printzesa, zure lehenengo urtebetetzean. Ondo pasa zure eguna. Muxu handi bat zure familiaren partez.



## Enara Garcia Mateo

ZORIONAK printzesa!! Orain bai esan dezakezula 3 urte dituzula!! Ze handia!! Muxuak, muxuak eta muxuak maite zaitugun denon partez.



## Asier

Maite zaitugun guztion partetik: ZORIONAK!! Segi hain alai eta zure 9. urtebetetzea, ondo igaro!



## Julene ZORIONAK polita!!

Muxu handi bat.



## Ainara Urkijo Goikoetxea

ZORIONAK!! Muxu handi bat potxola!! Amonaren partez.



## Inhar

ZORIONAK saltseriko! 3 urte!!!! Muxu handi handi bat Iraia, Oier eta izebaren partez!!



## Maddi

ZORIONAK, BIHOTZA! Hain urduri eguna noiz iritsiko! Azkenean, 6 urte! Egun on-ona pasa, maitia!



## Alex ZORIONAK! Afizioa berehala hasiko zaizu olatuak egiten. Animo!



## Martin Lakuntza Garcia

ZORIONAK Martin eta segi urteak betetzen orain arte bezain alai.



## Beñat Muñoa Goikoetxea

ZORIONAK pitxon!! 4 urte jada, zintzo ibili txirindula berriarekin!!



## Jurgen Balda Anso

ZORIONAK rubio!! Jada urte bat. Muxu pila bat etxekoen partez.

## urriak

# 25-31

Sakanako antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Taupadak.** Lastailaren 26an, larunbatean, 19:30ean Etxarri Aranazko frontoian. Fran Idareta, Haize Berriak banda, Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko abesbatzak.

### Antzerkia

**Super Heroínas.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 21:30ean Irurtzongo kultur etxean. **Trokolo.**

**Bigote's Band.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Movimiento Bola.**



### La gloria de mi madre.

Lastailaren 26an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Choni compañía flamenca.**

### Ipuin kontalaria

**Ametsetan.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Birjiñe Albira.**

**Beldurrezko ipuinak.** Lastailaren 31n, ostegunean, 17:30ean Olatzagutiko liburutegian. **7 urtetik gorakoendako.**

### Proiektzioa

**Myanmar, irribarreen sorlekua.** Lastailaren 31n, ostegunean, 20:00etan Irurtzongo Iratxo elkartearen. Eneko Etxebarrieta. **Iratxo eta Aizpea.**

### Zinema

**Amor.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 21:45ean eta lastailaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**El llanero solitario.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 27an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Jack el cazagigantes.** Lastailaren 27an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**El origen de los guardianes.** Lastailaren 27an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

### Mendi irteera

**Arbizuko Artabakar borda.** Lastailaren 27an, igandean.

### Sakanako ikastolen mendi taldea.

**Candanchu.** Lastailaren 27an, igandean, 6:00etan Olaztitik autobusa herriz herri. **Sakanako Mendizaleak.**

**Euskal Herriko erdigunea.** Lastailaren 27an, igandean. **Irurtzongo Iratxo elkarte mendi taldea.**

**Valderejo.** Lastailaren 27an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Txirindula irteerak

**Zaragozako eraztun berdea.** Lastailaren 27an, domekan, 7:00etan Altsasuko autobus geltokitik. **Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak. 32 km. Aurretik izen ematea.**

### Erakusketak

**Altsasuko II. Arte Azoka.** Azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Literatura

**Irakurle Taldea.** Lastailaren 31n, ostegunean, 19:00etatik 20:30era Etxarri Aranazko liburutegian. **Hizketagaia, Jokin Muñozen Antzaren bidea.**

### Tailerrak

**Lana, familia eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna. Erantzunkidetasuna eta etxeko lanen banaketa.** Lastailaren 25ean, ostiralean, 15:00etatik 16:30era Altsasuko ludotekan. **Aurretik izena eman.**

### Bestelakoak

**Bakarreko-etxea elkartearen eguna.** Lastailaren 26an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Bakaikun.

**Zamartzeko arkeologi indusketara bisita gidatua.** Lastailaren 26an, larunbatean, 17:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen. **Ondoren azalpenak.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 25ean, ostiralean, 20:00etan, Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Lastailaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Lastailaren 28an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Ostiraleko 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepassoa: albisteak, kirolak,  
Sakanako herri lasterketa, 3MB, arte azoka...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

*Piztu irratia!*

# Domu Santu egunez, hildakoak hartuko dituzte gogoan hilerrietan



GOIKO LOREDENDA

Panteoi eta hilobiak urtean zehar ohi ez besteko lorez hornituta egongo dira

**D**omu Santu egunean, azaroaren lehen, hildakoak gogoan hartuko dituzte Sakanako hainbat hilerrietan, izan ere, askorentzat egun esanguratsua da hori. Jende dezente hurbilko da hilobi eta hilarriak garbitzera edota berriz ere maitatuekin denbora tartetxo bat pasatzeko asmoz. Urtero bezala, Domu Santu egun jendetsua izango da, beti bihotzeandauden lagun eta senitartekoekin hitz egiteko momentua delako.

Ohiturari jarraituz, hilobietan lore-sortak utzi eta hildako senitartekoei eta lagunei omenaldi xumea egiteko eguna izaten da Domu Santu; errezatzeko eguna. Hala ere, hildakoa gogoratzera joateko aurretiko egunak nahiago dituztenak ere badira, Domu Santuk batu ohi duen jendetzarekin bat ez egiteko. Aurreko egun horiek izaten dira, gainera, hilobi eta panteoiak garbitu eta txukun jartzeko erabiltzen direnak.

Zein lore motarekin apainduko diren erabaki behar izaten da eta Sakanan eskaintza paregabea daukagu bertako loredendetan. Enkarguak egiten hasteko garaia da.

**Armando Guillen**  
Loreak eta landareak  
Asteazkenero Altsasuko merkatuan  
678 451 905 · Pueyo

**MENDILORE**

**Salmentan:** jarriak, jardinerak, arte florala, zure lorategirako behar duzun guztia, lurra, aromaterapia, intzentsuak, infusioak, figurak, baratzarako herramintak eta aleak, garaiko landareak...

**Lore sorta bereziak egiten dira**

Ordutegia: 9:30etik 20:00etara  
2. poligonoa 63. partzela • Bakaiku • 647 247 205

Enkarguak urriaren 27a baino lehen ordaintzen badituzu  
**%5. deskontua**

**lorea**  
lore eta belardenda  
948 564 260 | San Juan 52  
610 098 595 | 31800 Altsasu

Gure web orria bisitatu  
[www.floristerialorea.net](http://www.floristerialorea.net)

Enkarguak hartzen dira  
Urriaren 26an eta 27an, goizez eta arratsaldeaz zabalik

## URDIAIN

Bentalde z/g • 667 848 832



10:00-13:00 eta 16:00-19:00  
Larunbatetan: 9:30-13:30

# Goiko

LOREDENDA  
**Aukera eta preziorik onenak!**

Lore sorta, zentro, konposizio, krisantemo eta loredun landareak

Urriaren 25etik azaroaren 1era  
**8:00 - 20:00 ZABALIK.**

ENKARGUAK:  
948 564 260 / 610 098 595

## ALTSASU

Gartzia Ximenez 33





Xabier Reparaz Extramiana

# Orbel artean

Basoaren barrenean hosto erori haizeak daramatza noraezean. Euri tantak bustitzen dituzte biluztutako zuhaitzen enborrak. Haize finak hotsa dario hoztasun hezean. Udazkenak baditu une ilun eta hotzak, baina ageri ditu sarri kolore biziak. Eguzkiaren fereka laino artetik dir-dir, erori gabeko hostoen koloreak pizten ditu. Su gar koloreak betetzen dute, argiaren

miririak edertzen ditu txokoak. Orkatzen jauziek alaitzen dituzte pagadien orbel metak. Ageri dira udazkeneko loreak hosto tartean ezkutatu ezinik. Laburrak izpiak, laburrak irudiak, baina hura sentitzeko, beharko bizi hoztasun hezea. Eguzki izpien distiren premiak ematen digu haren edertasunaren berri. Gutxitan dugun haren edertasuna, izan ez dezakegunaren gogo,

hura da bizitzaren gauza txiki-ekin gozatzeko aukera ematen diguna.

Astigar zaharren hosto horiek lurrean adierazten digute negua hurbil dela, mendi gailurrak prest direla elur malutek osatutako mantu zuriaz estaltzeko. Tximinetatik zintzilik, keakegur errearen usaina zabaltzen du herriko kaleetan, euriak lurra bustitzen duen bitartean. Haurren

jolasak labor dira plaza eta parkeetan, eguzkiak ez baitie denbora gehiegirik eskaintzen azkenaldian. Etxearen babesean, barne bizitzaz betetzen dira txokoak. Barne gogoetarako denbora da, gureak gogoan izatekoak. Neguaren atarian, hotzari gogor eutsi eta lurraren ihartzea behatuz, etortzeko dagoen udaberriari piztuko denaren itxaropena konpartitzeko denbora.

## astekoa

## barrutik kanpora

Gure osasuna Roberto Jimenezen esku?

Parlamentuan eman den Udalez gaindiko Proiektu eta Planen (UPrS) legearen aldaketari buruzko eztabaidak agerian utzi du PSNk duela orain artean Nafarroan aplikatu den UPrS bidegabe, larri eta kontrako erantzun sendoenik jaso duenaren etorkizunaren giltza, eta beraz, gure eta gure seme-alaben osasunarena ere bai. "Argi eta garbi hondakin errausketaren kontra gaude, energia-berreskupanarekin edo gabe (errauskailuak, zementu-fabrikak, labegaraiak edo antzekoak) Madrileko Komunitateko eremu osoan" dio Madrileko PSOEek (PSM) bere XII. Kongresuan. Nafarroan Jimenezen eta UGTren PSNk beste zerbaitekin, baina Sakanan bakarrik, ez Tafallan edo Tuteran, eta horrela gure osasunarekin beraien politika joko zikinak ordaintzera kondenatzen gaituzte.

Portland-en UPrSren kontra dauden talde politikoez ez luke gai honen aurrean beraien ekimen politikoa iparririk gabe eta banaturik dabilen PSNren posizioaren menpe jarri behar, jakinik gainera Jimenezek jarrerak bateratzeko agindu duela alderdian. Dagokion garrantzia eman beharko liokete Portland-en UPrSak dakarren arrisku larriari eta UPNk eta PSNk herriarren osasunari eta inguruko eskualdetako baliabideei adierazitako begirune eskasari.

Portland-en UPrSaren kontra dauden talde politikoez guztie beren jarrera argia adierazteko eskatzen diegu, ezin dutelako beste egun bakar batez berriz ere Sakanako bidegabea eta baztertzaila den lege honen ondorioen erantzunkide izaten jarraitu.



3Mugak Batera Plataforma

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

gutunak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

## Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren erantzuna

Maite Aldaz Arroyo (Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko arduraduna) eta Aitor Karasatorre Mugurutz (Sakanako Mankomunitateko lehendakaria)

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako Larunblai programarekin lotuta, prentsan agertutako salaketan aurrean, zera azaldu nahi dugu:

Larunblai eta Iseka, edozein erakunde antolatutako jardura gehienak bezala, hartzaile zehatz batzuei zuzenduta daude. Horrek ez du esan nahi gainerako herritarrek baztertzen direla, baizik eta hartzaileek jardueraren helburuak bete ahal izateko baldintzak bete behar dituztela.

Kasu honetan, Larunblai eta Iseka haur eta gazteen artean euskararen erabilera bulkatzeko helburuarekin sortutako jarduerak dira. Haurren eta gazteen artean euskarazko harreman-sareak sortu eta indartu nahi dira, euskara haien komunikazio hizkuntza izan dadin.

Helburu hori bete ahal izateko, ezinbestekoa da egitasmoan parte hartzen duten ikasleek euskara maila ona izatea. Gutxieneko hizkuntza gaitasun hori ez badu-

te, gaztelaniara pasako dira, taldekideek euskaraz hitz egitea oztopatuz eta jardueraren helburua eragotziz. Beharrezko euskara maila hori D ereduak bermatzen du (euskarazko murgiltze eredu). Hala ere, D eredutik kanpoko ikasleek euskara proba egiteko aukera izanzen dute.

Bestalde, garbi utzi behar dugu Larunblai eta Iseka ez direla aisialdiko jardura arruntak. Aisialdia lagunarteko hizkeraren inguru naturala da, eta horregatik, ikastetxetik kanpo euskararen erabilera sustatzeko esparru egokia da.

## Igo gaitzen denok benetako euskararen espalora!

Maialen Pelaez eta Ainhoa Idiabeaz, Altsasuko EHE

Zoritzarrez, Sakanan euskararen alde pauso txikiak ematen dira, eta ematen diren gutxi horiek kritikatuak izaten dira askotan. Azken astean horren adibide argiak ikusi ahal izan ditugu. Batetik, Altsasuko Udalak kontratazioetarako ezarritako hizkuntza irizpideak kritikatuak izan dira eta, bestetik, Sakanako Mankomunitateak Larunblai aisialdi programan parte hartzeko ezarritako bete beharrak.

Altsasuko udalak langabezia

dauden eta euskaraz ez dakiten biztanleak "diskriminatu" dituela esan da. Baina nor da hemen diskriminatzen ari dena? Ez du norberak bere burua diskriminatzen bertako hizkuntza ikasten ez duenean? Garai batean euskara ikasteko zailtasunak egon ziren arren, gaur egun aukerak egon badaude (Mankomunitatearen diru laguntzarekin gainera).

Larunblai-ri dagokionez, Sakanako Mankomunitateak B ereduko ikasleak "diskriminatu" dituela kritikatu da. Baina ez dituzte gurasoek eurek diskriminatu B ereduan matrikulatzean? Argi dago B ereduak ez duela euskalduntzen! Aisialdian eredu horretako haurrekin harremanetan dauden haur euskaldunak gaztelarera pasatzera behartzen dituzte. Ondorioz, programaren helburuak ez dira betetzen.

Euskaldunok gure herrian diskriminatuak izan gara eta, gaur egun ere, gure hizkuntza eskubi-deak urratzen jarraitzen dute. Nor da hemen diskriminatua? Gu gara leku publikoetan euskaraz komunikatu ezin garenak. Gu gara euskara menperatzen ez dutenekin gure hizkuntza erabili ezin dugunak. Gu gara euskaraz bizi ezin dugunak!!!

Igo gaitzen denok benetako euskararen espalora! EUSKARAZ BIZI!!!

## gora/behera



### Super-heroiak

Astean ordu bat besterik ez da behar super-heroi izateko. Izan mintzakide.



### Ezer berririk

Ez zuen esan kontseilariak. Eskaera asko egin zizkioten udal ordezkariak.

## Olaztiko Udaleri

Izaskun Lobo Zubizarreta

Pasa den astean gutun bat idatzi nuen publikoki eta datu bat ez dela egokia egiaztatu dut: gure ikaslerik ez dela Olaztiko Udala Euskaraz-etik kanpo geratu, Sakanako Euskara Zerbitzuak orain dela 2 urte antolatutako udaleku batetik baizik. Beraz, Olaztiko Udalak inongo zerikusirik ez daukala argi utzi nahi dut.

# Guaixe

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net  
 GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675 • guaixe@guaixe.net  
 PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa  
 Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa  
 Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea  
 Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea, Erkuden Ruiz Barroso eta Maialen Huarte Arano  
 Zuzentzailea: Garazi Garzia Mauleon

Lege gordailua: NA-633/1995  
 Tirada: 3.200 ale

## LAGUNTZAILEAK:

Mank  
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO  
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
 ETA KULTURA SAIALA  
 Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

**PORTLANDEKO EEE AURRERA:** Herenegun adostu zuten Madrilan CPVK eta CCOOK, UGTK eta independenteek kontratuak aldi baterako eteteko enplegu espediente be-

rria. 2014ko akabera bitartean langile ba-koitza gehienez ere urte erdia geldituko da. %75-85 arteko soldata jasoko dute.

# sakanerria >>

## SAKANA

# Saldutakoa saltzera

Asteartean Irurtzunen izan zen Jose Javier Esparza Landa Gara-peneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilari, Leitzaran, Larraun eta Sakanako hainbat udal ordezkariarekin elkartuta. Nafarroako Gobernuak hiru eskualde horietan 2012-2014 aldiko lanetarako 4,19 milioi euro eman zituela jakinarazi zuen.

Lehendik ere jakina zena kontatu zuten kontseilariak udal ordezkariari. Haien artean Arakil, Irurtzun, Irañeta, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Altsasukoak zeuden. Esparzak azaldu zenez, 2009-2012 Toki Azpiegituratarako Plana 2015 urtera arte luzatuko da. Bitartean premiazko lanak egite-

ko besterik ez du Nafarroako Gobernuak, 10 milioi euroekin. Horiek uholde eta bestelako ezbeharrek sortutako kalteak konpontzeko bideratuko dituzte. Beste sail batzuetan inbertitu gabe gelditu diren diru poltsa txikiak lanetarako bideratu dituztela ere aipatu zuen. Lanak egin dituzten toki erakundeetako ordezkariari eskatu zien haiek lehenbailehen ziurtatzeko, laguntzak azkar jasotzeko.

Kexu azaldu ziren udal ordezkariak, diru-laguntza deialdirik egiten ez bada lanik ezin delako egin eta lanak pilatu egiten direlako. Gainera, dagoen apurra gehiagoren artean banatu behar dela eta toki erakundeak diru

## Satrustegi

Kontzejuak herriko sareak eta zorua berritzeko premiazko laguntza eskatua dio departamentuari. Arakilgo alkate Ruben Goñiri teknikari batek aurreratu zionez, ziurrenik ez da lan horietarako dirurik izanen. Pasa den mendeko 50eko hamarkadako azpiegitura du herriak.

gehiago jarri behar zutela adierazi zioten. Hurrengo bi urteetan tokiko azpiegiturak egiteko finantziarioa aukerak aztertze eskatu zioten.

Aldi berean, bestelako jarrera



Hautetsiak bilduta. Mank eta kontzejuak ez zeuden gonbidatuak.

bateskatu zioten udal ordezkariak Esparzari. Toki erakundeak herri-tarrendandik gertuen dauden erakundeak izanik, Nafarroako Gobernu haiekin elkarlanean herri-tarren beharrak zein diren

aztertze eskatu zuten. Horrela administrazioa eraginkorragoa izanen litzatekeela adierazi zioten kontseilariari. Behar horiek azpiegiturak soilik ez direla nabarmendu zioten. +www.guaixe.net

## Gaur erabakiko dute 197/2006 doktrina aplikatu zaienen inguruan

**Europak atzera bota duen doktrina Jesus Mari Mendinueta, Bautista Barandalla eta Unai Paroti eraginen lieke**

Europako Giza Eskubideen auzitegiak atzera bota du Espainiaren helegitea. Estrasburgoko epaitegiak ebatzi du 197/2006 edo Parot doktrina Ines del Rio presoari ezarri zaion moduan giza eskubideen kontrakoa dela, eta 2008tik legez kanpo dagoela preso. Epaileen iritziz doktrinak Europako Giza Eskubideen Ituneko 5. eta 7. artikuluekin talka egiten du eta preso asteartean libre gelditu zen.

Estrasburgoko epaiaren ondoren, Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Aretoko epaileen ohiko bilera eginen dute gaur. Erabakia-ekin aske geratu behar duten preso kasuak aztertzen hasiko dute. Presoen abokatuek haiek aske gelditzeko eskaerak aurkeztuak dituzte dagoeneko. Auzitegiak banan-banan aztertuko du preso bakoitzaren eskaera. Ofizios askatzeko aukera ez dirudi gauzatuko denik.



Hainbatetan eskatu da doktrina indargabetzea.

## Sakandarrak

Del Rioren egoeran 59 preso daude. Horien artean Jesus Mari Mendinueta Flores, Bautista Barandalla Iriarte eta Unai Parot Navarro. Gaurko epaiak haiei eragingo dien ikusteko dago. Arbizuarra 1991n espetxeratu zuten eta 2011ko maiatzak 4rako zuten irteera data. Doktrina aplikatuta espetxetik 2021ean aterako litzateke. Etxarriarra 1990ean espetxeratu zuten eta 2009ko

garagarrilaren 30erako zuten irteera data. Doktrina ezarri eta 2020ra arte luzatu zioten zigorra. Bere gaitasuna dela eta 2009an kaleratu zuten, kontrol neurriekin etxean dago. Azkenik, Parot 1990ean espetxeratu zuten eta doktrina irteera data zehaztu aurretik ezarri zioten. 197/2006 doktrina ezarri zioten aurreneko preso izan zen Parot eta bere abizenarekin ere ezagutarazi zuten. +www.guaixe.net

## Irailean ere langabeziak behera egin zuen

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jakinarazi duenez, agorrilarekin alderatuta iraila akaberan Sakanan 36 langabetu gutxiago zeuden, 1.954 zehazki. Otsailean 2.021eko marka jarri ondoren beherako joera hartu zuen langabezia eta iraila bitartean 268 pertsona atera dira zerrendatik. Nafarroako langabeziaren %3,48 ibarrekoa da, herrialdeko populazioaren %3,22 garenean.

Lan bila dabilen gehienak, 906, emakumezkoak dira (%51,65, 12 gutxiago). Gainontzeko 848ak gizonezkoak dira (%48,35, 24 gutxiago). Adinari erreparatuta, lan bila ari diren gehienek 25 eta 44 urte artean dituzte: 781 (%44,64, 72 gutxiago). 45 urtetik gorako 771 langabetu daude ibarrean (%43,96, 26 gehiago). Enplegu bulegoan izena emana duten 25 urte baino gutxiagoko 200 sakandar daude (%11,4, 10 gehiago).

Sektoreei dagokionez, langabetuen %53,36k (936, 3 gutxiago)

Langabezia udalerrira. Iraila		
Udalerrria	Guztira	
Altsasu	862	-12
Arakil	72	-4
Arbizu	75	-5
Arruazu	1	-3
Bakaiku	15	-2
Ergoiena	10	-4
Etxarri Aranatz	164	-15
Irañeta	11	+1
Irurtzun	203	+6
Iturmendi	17	0
Lakuntza	93	+1
Olatzagutia	116	+9
Uharteko Arakil	60	-1
Urdiain	30	-9
Ziordia	25	-3
<b>Guztira</b>	<b>1.754</b>	<b>-36</b>

zerbitzutan lan eginen lukete. Langabeen %30,39 (533, 36 gutxiago) industrian arituko litzateke. Eraikuntzan lan egiteko prest dago %7,92a (139, 6 gutxiago). Lehen sektoreak, berriz, lan eskaeren %1,94 jaso du (34, 4 gehiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez eta lan bila dabilenak %6,39 dira (112, 5 gehiago).

ZERGATIK BAZTERTUKO ZENUKE CITROËNEN ESPERIENTZIA?

**OLIO+FILTRO ALDAKETA 59€**  
-TIK<sup>(1)</sup>  
LUBRIFIKATZAILEETAN  
ESKAITZA BEREZIA

AZKEN PREZIOA ZERGAZ BARNE  
QUARTZ 7000 10W40 LUBRIFIKATZAILEA ERABILITA

CITROËN ESPERIENTZIA  
LORTU OPARI

DOAN ETA ZOZKETA GABE<sup>(2)</sup>  
GIMNASIOETARA SARRERAK, PILATES, IGERIKETA,  
PADJAL, GOLFA, YOGA, KAYAK ETA ASKOZ ERE GEHIAGO.  
INFORMAZIO GEHIAGO: [www.tuexperenciaticroen.com](http://www.tuexperenciaticroen.com)

[www.citroen.es](http://www.citroen.es)



2013/09/10 ETIK 2013/11/15 ERA

(1) TOTAL QUARTZ 9000 SW40 lubrikatzailea erabilita, azken prezioa 69€ da, eta TOTAL QUARTZ INEO ECS SW30 (5L-tako karterra duten ibilgailuentzat bakarrik) lubrikatzailea erabilita 79€ da. Eskaintza baliagarria ibilgailu partikular eta 2L baino gehiagoko motorizazioa ez duten utilitario arinentzat. JUMPER modeloa ez da eskaintzan sartzen.  
(2) Citroën Zerbitzu Ofizialetan edo honi atxikitako tailer batean TOTAL QUARTZ 7000 10W40, TOTAL QUARTZ 9000 SW40 edo TOTAL QUARTZ INEO ECS SW30 lubrikatzaileekin egindako olio eta filtro aldaketa egiten duten eta CITROËN autoa duten edota jabeak diren pertsonak parte hartu dezakete eskaintzan. Erabilitako olioak Citroën Zerbitzu Ofizialak hornituko du. Citroën esperientzia, aisi eta kirol ekintzetan datza eta hauek 2013/03/31ra arte erabilgarriak izango dira. Informazio gehiago eskaintza honetara atxikita dauden Citroën Zerbitzu Ofizialekin eta [www.citroen.es-en](http://www.citroen.es-en).



CITROËN preferre TOTAL



>> **Etxarri Aranatz**

## Interpretazio zentroko lehen lanetarako boluntario bila



Ostiralean parkeko eremua ikuskatu aurretik. ENARA INSAUSTI

Etxarri Aranatzko Udalak eta Nafarroa Bizirik fundazioak boluntarioak eskatu dituzte, Enneco, haritzaren memoria zentroko aurreneko lanak egiteko. Egin beharrekoak hiru dira: Basopokale garbitu; sasiak kendu (mantendu behar diren zuhaitz eta guneen inbentarioa egiteko) eta tokiaren neurketa topografikoa egin (gero proiektua bertako balibideetara eta orografiara moldatzeko).

Ostiralean aurreneko parkea hartuko duen ingurua ikuskatu zuten. Egin beharreko lanak zein diren eta nola egin zehaztu zuten.

### Izena ematea

948 460 004 (udaletxea, bulego orduetan) edo etxarriaranatz@gmail.com. Beharren eta eguraldiaren arara hots egingen zaie boluntarioei.

Gaur, berriz, parkeko eremua lursailetan zatitu dute. Asmoa da larunbatean sasi garbiketa egiten hastea. Hamar pertsonetako lantaldetan banatuta egingen dira auzolan horiek, beti basozainen gidaritzapean.

>> **Errotz**



Bizkaia mendian dago harrobia.

## Bizkaia mendian bi pista zabaltzeko baimena aztertzen ari da udala

Canteras de Oskia enpresak Bizkaia mendian bi pista zabaltzeko eskaera aurkeztu dio Arakilgo Udalari. Lan horiek Oskiak harrobiko errestaurazio plana aurrera eramateko aurrelanean batzuk dira. Enpresaren eskaera udal arkitektoak aztertu du. Ruben Goñi alkateak esan digunez, errestaurazio planeko ingurumen inpaktu azterketan jasotakoak betetzea zorrotz eskatuko diote enpresari. 10 urtetan egin behar da errestaurazio plana eta udalak ustiapenaren kontrola egingen du. Gainera, planaren jarraipena egiteko jarraipen batzordea sortu dute enpresak, Nafarroako Gobernuaketa ikututako toki erakundeek.

>> **MOTZEAN**

## Hiru gaztandegi Euskal Herriko gazta txapelketan

Artzai Gazta elkarteak antolatuta, Idiazabalek hartuko du gaur XXX. Euskal Herriko Idiazabal Artzain Gazta Lehiaketa. Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan jokatuako txapelketa bakoitzeko hamar gaztarik onenak izanendira gazteneuskal "txanpions" berezian. Uharteko Arakilen ospatutako Artzain Egunean gaurko lehiaketarako txartela lortu zuten 3. izan zen Unanuko Ibarborda, 6. izan zen Balda-Artola unanuarra eta 9. sailkatutako Araña-Etaio arbizuarrak.

## Mank migratzaileen inguruko zurrumurruen kontrako topaketan

Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuko teknikari Bego Zestau heldu den asteazkenean heldu den astean Alter Nativas Fundazioak antolatutako jardunaldi batean parte hartuko du. Migratu duten pertsonen edo beste kultura bateko pertsonen buruz zabaltzen diren zurrumurruen aurkezteko hainbat ekimen garatu dira eta topaketa horretan horretaz ariko dira.

Zurrumurruen kontrako ekimena 2010ean jarri zen martxan Bartzelonan eta hainbaterakunde beregin dute, tartean Sakanako Mankomunitateak. Zestauk ibarreko ekimenen berri emanen du. Berarekin batera ariko dira Ekain Larrinaga, Getxoko Udaleko inmigrazio teknikaria eta Rebeca German, Alter Nativas-eko kolaboratzailea. Asteazkenean, 18:00etatik 20:00etara, Iruñeko Gazteriaren Etxean (Zangoza, 48).

## Gurasoak sare sozialetan trebatzeko

Olatzagutiko Udalak gurasoei zuzendutako tailerra antolatu du. Haren bidez seme-alabek erabiltzen dituzten teknologia berriak zein diren ezagutzeko aukera izanen dute. Behin haiek ezagututa gurasoek etxeko txikiei laguntza emateko aukera izanen dute. Tailerra azaroko aurreneko hiru ostiraletan izanen da, 9:30etik 11:00etara, kultur etxean. Interesatuak azaroaren 4ra arte eman dezakete izena 948 467 662 telefonora hotsegin.

## Elizkizun berezia santutegian

Lastaileko elizkizun bereziei akabera emateko, igandean, 12:30ean Aralarako santutegian meza izanen da. Lakuntzako parrokiako abesbatzak kantatuko du elizkizunean. Hura despeditzean fededunek aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute eta Mikel gurea zaindu Euskal Herria kantatuko da.

## hara zer dien

## Lampedusan gertatutakoa

...Ez da zoritxarra izan. Edozein hiztegiaren begiratzaren badugu, zoritxarrekin, ezbeharrekin, istripuekin... bat etortzen da. Baina Lampedusako ez da hondamendi klimatiko bat izan; ez da kalte edota galera materialik izan, eta ez zaio maite dugun gertuko inori gertatu.

Erakundeek sentimenduei oso eginez erantzun dute, emozioetara jo dute, hildakoekiko sentiberatasunari oihu eginez. Baina guzti horren atzetik, egoera juridiko-politiko eta ekonomikoak ezkutatzearen ahalegina dago.

Ontzi horretan zihozanek, Eritrea eta Somaliako biztanleak ziren gehienak, munduko zonalderik txiroenetako biztanleak, goseteak eta gerrak jotako zonaldeetakoak. Ez zuten bidaia hori abentura grinaz egingo. Beste modutara iristea ezinezko dutelako (hegazkina hartzea edota visadoak lortzea) erabakiko zuten bide hori hartzea.

Sami Naïr-ek dioen moduan "haien jasan ezinezko egoeratik atera nahian ezbeharrekin topo egitera abiatuko ziren".

"Etortzen jarraituko dute, hiltzen jarraituko dute, historiak berak adierazi baitu ez dagoela ametsak geldiaraziko dituen mugarik".

Pertsonen mugimendu globala bultzatu nahian batetik, baina mugimendu horren menpe bestetik, kontraesanez beteriko sistemari bizi gara. Aberastasunaren eta herrien banaketa ezberdinean oinarritzen dena.

Aldiberean pertsonen mugimendulibrea debekatzen duten toki itxi eta harresiak eraikitzen ditugu.

Italiako Bossi-Fini "anti-migratzaileen" politika, EBko zuzendaritza, eta atzerriartasunerako erregulazio anitzek, pertsonen heriotza zaildu edota saihestu beharrean, akabera tamalgarri hori errazten dute. Europako legedi "anti-migratzaileak" eta bereziki Italiako 189. lege xenofoboak (2002) badu zerikusirik Lampedusako gertakizunean.

Hortaz, orain Lampedusan gertatutakoa berriro gerta daiteke. Eta, modu batean edo bestean, denok gara horren erantzule. Norberak hausnar dezala...

**Bego Zestau**

>> **Altsasu**

## Presoen argazkiak Guardia Civilek jasoak

Herenegun Guardia Civilak Foru plazako eraikin batean zegoen Lasa eta Zabala gogoratzen zuen pankarta eta kioskoaren goiko aldean zuden Sakanako presoen argazkiak eta Herrira-ren kartelak kendu zituzten.

>> **Altsasu**



Jende asko izan bazen ere,azienda gutxi saldu zen.

## Jende ugari ferietan

Igandean, jende asko erakarri zuen Altsasuko feriak. Udalak bertako zaldien feria indartzea erabaki zuen eta horretarako ibarreko abeltzainei 60 euroko laguntza ematea. Hala, 69 zaldi eta behor bildu ziren Ferialeku kalean. Han izan ziren bitartean epaimahaikideek aztertu zituzten. Nagusiek

sariak jasotzeko animaliek lagunduta joan behar izan zuten Foru plazako kioskoran, halako paseotxoak eginez. 1.870 euro banatu ziren saritan.

Horretaz aparte, salerosketa mugimendua izan zen artisau produktuen eta ohiko azokan. Urteroko hitzorduari huts egin ez zio-

Sariak	
<b>Hazitarako zaldi onena</b>	
1.	Milagros Ramosena
2.	Javier Lanzena
3.	Vicente Arozena
<b>Behor onena, pottorik gabe</b>	
1.	Javier Arraizarena
2.	Martin Ezkurdiarena
3.	Iñaki Larreaarena
<b>Behor onena, pottoarekin</b>	
1.	Javier Agirrerena
2.	Antonio Aldasorrena
3.	Patxi Legarrarena
<b>Potto eme onena</b>	
1.	Iñaki Larreaarena
2.	Patxi Agirrerena
3.	Sagrario Aranoarena
<b>Potto ar onena</b>	
1.	Vidente Ollokiegirena
2.	Patxi Legarrarena
3.	Gorka Imazena
<b>Feriako onena</b>	
Sendo, Milagros Ramos lakuntzarrarena	

tenak argazkilariak izan ziren. Altsasuko Mendigoizaleak-ek antolatutako rallyan 46k parte hartu zuten. Inauteri Batzordeko kideak, bestalde, txistorra eta gazta pintxoak, ardoa eta salda saldu zituzten. Aurten ez zen mikologia erakusketarik izan.

**MAITE**  
arrandegia  
Arrain freskoak, egunero  
Pasaiako txipiariak  
Hondarribiako hegaluzea

948 467 385 • 607 973458  
La Paz 3 • ALTSASU

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

**OILATEGIKO ANIMALIEN PENTSUA 10KG.KO POLTSETAN**

10 Kg.

**sorgiñak**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

## SAKANA

# Euskararen super-heroien hitzorduak zehaztuta

**Hizkuntza praktikatzeko astean ordu batez bilduko dira Mintzakideko 6 talde. Gehiago sor litezke**

Mintzakide programak euskaraz aritzeko ohiturarik ez dutenak ohi-tura dutenekin elkartzen ditu. Aste-an behin eta ordu batez. Topaketa horien helburua euskara praktikatzea. Gainera, gustuko jarduerak egitera elkartzen dira Mintzakideak, esaterako: paseatu, kafea hartu... Edozein toki eta ordutan bildzeko aukera dago, bai mendian, bai kalean, bai tabernan... goizez, arratsaldez edo gauez. Beti ere euskara biziberritzeko.

## Mintzakide taldeak

Astearteetan, 10:00etan, talde bat Altsasuko Akeita kafetegian bilduko da; 15:30ean, Olatzagutiko kiroldegiko tabernan eta, 17:30ean, Irurtzungo Iratxo elkarteetan. Ostegunetan, 17:00etan Altsasuko Koxka tabernan dute hitzordua jarrita. Ostiraletan hitzordu bikoitza dago: 15:00etan Etxarriko estalopean eta geroago Xapatero tabernan eta Irurtzunen, 17:10ean, Pikuxar euskal txokoa.

Norbaitek izena emanez gero bi talde ere martxan jarriko dira: Lakuntzan astearteetan, 18:15ean

## Argibideak

Informazioa jaso edo parte hartu nahi baduzu, Sakanako AEK euskaltegira (948 468 258, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) edo [facebooken Sakanako Mintzakideak](https://www.facebook.com/SakanakoMintzakideak)) edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzura (948 464 840 edo [euskara@sakana-mank.com](mailto:euskara@sakana-mank.com)) jodaitezke. [Sakandarren bloga: http://sakandarrenbloga.blogspot.com](http://sakandarrenbloga.blogspot.com)

eta Altsasun, asteazkenetan, 20:00etan.

## Hezkuntzako eragileek manifestaziora deitu dute



LOMCEren kontra institutuan atzo egindako protesta. UTZITAKOIA

*Hamaika arrazoirengatik, LOMCEri ez!* Lelohori izan zuen atzo Iruñean eta Tuteran egin ziren manifestazioek. Herrikoa, Sortzen, Ikasle Abertzaleak, LAB, STEE-EILAS, CCOO, AFAPNA, ANPE, CSIF, ELA, UGT eta Eraldatu erakundeek deituzituzten. Hainbat alderdik eta eragileek bat egin zuten deialdiekin. Murrizketen kontra eta onartu den LOMCE legearen kontra protesta egin zuten.

Eragileok Nafarroan dinamika bateratua sustatu dute. Lastaileko ostegunguztietan mobilizazioak eginen ari dira ikastetxeetan. Aurreko astean *LOMCEri ez!* zioten irudiak sortu zituzten ikastetxeetan. Atzo manifestazioez aparte, heldu den ostegunetan, berriz, ikastetxeetan elkarretaratzeak egingen dira.

## Fisioterapia saioak gaur hasiko dira Parkinson gaixoendako



Anaparreko Sara Diaz de Cerio, Kontxi Mendiluze eta Lara Goikoetxea.

Nafarroako Parkinson Elkarteak (Anapar) fisioterapeuta urdiaindarrak, Lara Goikoetxeak, zuzenduko ditu fisioterapia saio horiek. Berak azaldu digunez "talde terapia gisa antolatu dugu, gaixoei onura bikoitza ekartzen dielako: ariketa egitea, batetik, eta haien arteko erlazioa, bestetik".

Hala ere, Goikoetxeak argitu digu gaixoei beharrezko duten tratamenduan farmakoak oinarria badira ere, terapia osagarriak beharrezkoak dituztela. Hor sartzen da elkarteak Altsasun gaurdanik eskaintzen duen fisioterapia; baita Iruñean ematen diren logopedia, okupazio terapia eta laguntza psikologikoa ere. Gaixo bakoitzaren sintomen arabera aplikatzen direla azaldu digu Goikoetxeak. Berak lau urteko eskarmentua du Parkinson gaixoei.

## Elkartean

Anaparreko koordinatzaile Sara Diaz de Ceriok atzo hitzaldia eman zuen Altsasun. Gaur martxan jarriko den programa horretaz aparte, gaitzaren inguruko argibideak

## Fisioterapia

Astearteetan, 11:30etik 12:30era eta ostiraletan 12:00etatik 13:00etara. Gainera, horren aurretik edo ondoren bakarkako saioak egiteko aukera dago. Altsasuko Intxostiapuntako gimnasioan izanen da, gaur hasi eta garagarriera arte.

## Harremanetarako

948 232 355; [www.anapar.org](http://www.anapar.org) edo [anapar2@hotmail.com](mailto:anapar2@hotmail.com)

eman zituen: jatorriaz, sintomezeta haren inguruan dauden mitoez aritu zen. Hitzaldiaren helburuetako bat jendeak Parkinsona ezagutzeko eta hobe artatuak izateko eta hobe ulertuak izateko.

Diaz de Ceriok azaldu zuenez, zerbitzuak Sakanako 106 gaixoengana hurbilduz dependenziaren prebentzioa egin nahi du elkarteak. Iruñean 5 taldeekin batera Lizarran eta Tuteran talde bana ditu elkarteak.

## Uharteko Arakil

# Sinboloen legeak betetzeko eskaerak jaso ditu udalak

Aspaldiz goen jarria Nafarroako bandera Uharteko Arakilgo udaletxe-ko balkoian. Ezkerretan jarria zegoen. Baina Nafarroako Gobernuak banderak lekuz aldatzeko errekerimendua bidali zion udalari, izkinan jartzeak "errespetu-falta adierazten zuelako" eta auzi-

tegira jo zuen. Epaiak ebatzi ditu lehentasunezko toki batean jarri behar direla banderak, hau da, balkoiaren erdian. Udalak epaiaren gastuak ordaindu behar dituela dio epaiak.

Bestalde, Uharteko Arakilgo Udalak jaso du Espainiako bandera

udaletxean jartzera behartzen duen epai irmoa. Hala ere, oraindik ez da epaia betetzeko agindua udaletxera iritsi.

Halako berrien aurrean, duela bi aste ospatutako Euskal Festaren barruan, San Juan plazan, Autobus geltokitik gertu, ikurrina, Uharteko



Banderak San Juan plazan.

ko bandera eta Nafarroako banderak (koroarik gabe) jarri zituzten basta banatan. Guk Gureak elkarteak kideek Espainiako ikurren "inposizioa" salatu zuen. Elkarteak nabarmendu duenez, aginduak "Uharteko Udalean banderarik ez jartzeko akordioaren kontra egiten du". Nabarmendu zuten: "Uharteko Espainiako banderak ez du gehiengo ordezkatzen". Bandera horren "ezarpena asimilazio saikera" dela gaineratu zuten.

**FRONTOIKO TABERNA**  
Plater konbinatuak  
Bazkariak eta afariak enkarguz  
948 469 138  
ERKUDEN 4 · ALTSASU

**Redin**  
Lurrindenda eta kosmetika  
948 562 452 ALTSASU

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta  
Astehenetik ostiralera  
Eguneko menua  
8,25€  
Asteburuetan  
Menu berezia 25€  
948 467 876 · Altsasu

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak  
Festetan ere eguneko ogia hemen!  
Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763

## SAKANA

# Goi tentsioko linearen kontrako marea gorria osatzeko deia

**Igandean, Ororbian, Deikaztelu-Itsaso arteko argindar linearen kontrako eguna ospatuko da**

Autopista Elektrikorik Ez plataformak antolatuta du etziko eguna eta Red Eléctrica Española (REE) egin nahi duen 400 kV-ko argindar lineari aurkakotasuna adierazteko balio nahi du. Proiektuak justifikaziorik ez duela adierazi dute beste behin.

Plataformatik gogora ekarri dute egitasmoak ikututako toki erakundearen oposizioa duela. Gogora ekarri dute ere garilean proiektuari 14.000 alegazio aurkeztu zizkiotela udalek, kontzejuek, era-

kundeek eta herritarrek, "inoiz proiektu bati aurkeztutako kopuru handiena". Toki erakundearen alegazioei erantzunez REE-k hila-bete honetan emandako erantzunean "modu desegokian orain arte jaso gabeko justifikazioak ematen ditu, esaterako, nazioarteko lotura". Erantzunak Nafarroako Gobernuaren argudio "eskasak eta faltsuak errotik desegin ditu". Foru administrazioak toki erakundearen borondateari bizkarra eman diola eta enpresaren alde jarri dela berretsi du plataformak.

Igandean Ororbiara plataformaren kamiseta gorria jantzita



Plataformako kideek igandean Ororbiara joateko deia egin dute.

## Egitaraua

Garai bateko autoekin Zendearen zehar ibilbidea.  
**12:00etan** Zantantzarrak eta batukada kaleetan barna.  
**12:00etatik 13:00etara** Herri kirolak (Ibero), erraldoiak, Ziraukiko banda.  
**13:00etan** Ekitaldi nagusia eta marea gorria (kamiseta gorriarekin etorri).  
**13:30etik 15:00etara** Ororbiako, Goierriko eta Zizur-Barañaingo txalapartariak, Gareseko txistulariak, DJ Simpatik.  
**15:00etan** Herri bazkaria frontoian (Kalderete) bertsolariekin.  
**17:00etan** Bideo emanaldia eta Lurkide kanpainaren aurkezpena.  
**18:00etan** Iparfolkekien taldearen kontzertua.

joateko deia egin dute, marea gorria irudikatu ahal izateko. Horretaz aparte, *Geroa lurretik hasi* leloa hartuta, Lurkide kanpaina aurkeztuko da, argindar lineako dorreak jarriko diren tokiak babestea.

## 3MBak berdintasuna eskatu dio Parlamentuari

**Donapeako UPPrS-a aztertu duen bezala, Portlandeko aztertzea eskatu du**

Iruñeko Udalak ezetz esan zion Donapeako Lanbide Heziketako zentroaren lurra OPUSeko Nafarroako Unibertsitateari saltzeko proposamenari eta Nafarroako Gobernuak Udalez Gaidiko Proiektu Sektoriala (UPrS) izendatu zuen proiektua, Iruñeko Udalen iritzia gainera gaitik pasaz,

baimen hori OPUSi emateko. Atzo, Nafarroako Parlamentuak aztertu behar zuen aipatu UPPrS indarririk gabe uzteko oposizio alderdien proposamena.

Hondakinen errausketaren kontrako Hiru Mugak Batera plataformak (3MB) Nafarroako Gobernuak Cementos Portland Valderrivasi hondakinak erraustea ahalbideratzen dion UPPrSaren berdina egin dezala eskatu dio

Nafarroako Parlamentuari. Kasu honetan ere Olatzagutiko Udala errausketaren kontra azaldu zen baina Nafarroako Gobernu bere gainetik pasazen, UPPrS onartuz. "Ustez Foru Komunitatearen interes orokorra beharko litzatekeena multinazional baten interes ekonomikoak besterik ez dira, bere negozioa zementu-fabrikaren hondakinak errausketa bidez kudeatuz dibertsifikatu nahi due-

na. Aldiz, herritarrek eta udalek defendatzen duten interesa herritarren osasuna da, errausketaren kontra herritarrek mota guztietako minbiziak harrapatzeko arriskua areagotzen baita" nabarmendu du 3MBk. Horrengatik, plataformak eskatu du parlamentariak aukera baliatu dezatela diskriminaziorik egiten ez duen lege bat egiteko, "horrela beste UPPrS bidegabe batek aurrera egin ez dezan".



Jendetzak babestu zuen eskaera.

## Bi sakandar kontratatuko dituzte baleontzia egiteko

Albaola elkarteak San Juan baleontziaren errepika egingen du. Sakanako haritzak erabiliko dira horretarako. Baita lan eskua ere. Izan ere, Albaolak eta Sakanako Garapen Agentziak adostu dute baleontziko lanerako bi sakandar kontratatzea. Hilabete baterako kontratua eskaintzen da, azaroaren 11n hasita.

Haien lantokia Zeraingo zerrategian izanen da eta laguntzaile lanetan ariko dira. Interesatuak

Sakanan erroldatuta egon behar dute eta euskara jakin behar dute lan hizkuntza izan baita. Zerrategian edo baso lanetan eskarmentua izatea kontuan izanen da. Gipuzkoako lan hitzarmenaren arabera soldata izanen dute. Curriculumak hilaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, garapena@sakana-mank.com e-posta helbidearen bitartez edo Arbizuko Utzubar industrialdean dagoen Garapen Zentroan.



Zuhaitzetik atera litekeen pieza.

## MOTZEAN

### Sakandarrek Madrilen deklaratu dute

Espainiako Auzitegi Nazionalen 35/02 sumarioko epailetako aste honetako azken saioa egin zen atzo. HB, EH eta Batasunako kide izanda ETArekin kolaboratzea egotzi dieten zazpi euskal herritarrek deklaratu zuten, haien artean Juan Kruz Aldasorok. Etxarriarrak adierazi zuen bere jardura erabat politikoa izan zela. Herriko alkate zela intsumiso deklaratzeko kargurako ezgaitu zutela gogorazi zuen. Epaitegiek halakorik eragozten zuten, Batasunaren legez kanporatzearen ondoren ezer berreraikitzeke inolako asmorik ez zela izan adierazi zuen. Astelehenean Jaione Intxaurragak deklaratu zuen eta Aldasororen modura, akusazioak ukatu egin zituen. Arbizuarrek Nafarroako herriko tabernen koordinatzaile izateakatu zuen. Bestalde, azaldu zuen 1999 eta 2002 urteen artean Euskal Herritarrok parlamentuko taldearen idazkari lana egin zuela eta, horrek, bilerak egiteko Hego Euskal Herrian batetik bestera mugitzea eskatzen ziola. Arbizuarrendako 8 urteko espetxe zigorra eskatzen dute. Aldasororendako eskaera 10 urtekoa da.

## MOTZEAN

### Pentsio duinak aldarrikatzen dute

Sasoiak, Nafarroako Jubilatuen Elkarteak, deituta, astelehenean Etxarri elkarretaratzea egin zen. Pentsioen erreformak erosketa ahalmenaren eragina eta bizimodua garestituko dituela salatu zuten. Botikak eta ambulanziaz ordaindu behar diren diela salatu zuten ere.

### Dena prest Bakarreko-Etxea egunerako

Bakaikuko elkartearen eguna ospatuko dute bakaikoarrek bihar, larunbatean. Egun osoko egitaraua prestatu dute, bazkideendako zein bazkide ez direnendako.

## Egitaraua

**10:00etan** Jose Ramon Andaren tailerrari bisita.  
**13:00etan** Poteoa akordeoia eta panderoarekin.  
**13:30ean** Haurren bazkaria.  
**14:30ean** Bazkaria elkartearen. Bazkal ondoren bingoa. Irabazlearendako bazkaria doan!  
 Bazkaldun ondoren haurrendako pelikula.  
**18:00etan** Musika.  
**20:30ean** Auzatea.  
**22:00etan** Dantzaldia DJekin.

**GANUZA SUKALDEAK**  
 Sukalderako altzariak  
 Bainu gelako altzariak  
 Horma armairuak  
 Etxetresna elektrikoak

Tel.: 948 460 203 Fax: 948 460 673  
 c.ganuza@cocinasganuza.com  
 www.cocinasganuza.com  
 Etxarriko industrialdea  
 ETXARRI ARANATZ

**kaxeta**  
 liburudenda / paperdenda  
 Enkargatu zure testu liburuak

**bai**  
 zerbitzu enpresa

Fax Zerbitzua  
 Koloretako fotokopiak

Tel.: 948 460 477  
 Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan orain!**

**Berria erosi taldea**



» Uharte Arakil

# Uzta ona arkeologi indusketan

**Etxe erromatar baten egitura azaldu da, baita XI. mendekoa izan daitekeen Donejakue bideko erromes baten aztarnak**

Zamartzeko arkeologi indusketan azken egunak dituzte hauek. Eguraldiak ez du gehiegi lagunduko hemendik aurrera. Horren jakitun, Aditu Arkeologia Zerbitzuko kideek bukatutzat eman dute lau garren indusketa aldia. Baina dagoeneko bosgarren bat izanen da 2014ko garagarria eta iraila bitartean edo.

Aztarnategian gero eta indartsuago ari dira lanean. Aurreneko urtean, 2010ean, lau egon ziren lanean. 2011n 10 eta 15 artean. Joan zen urtean hogeita luze eta aurtentan, 50 bat izan dira indusketan lanean. Fran Valle de Taraza zuzendariak esan digunez, "2014an gauza bera egiten badugu azkarrago egin ahal izanen dugu aurrera. Informazio guztia ateratzea. Poliki goaz. Gurea ikerketa hutsa da. Horregatik, detaileei erreparatze-

ko aukera ematen digu. Aztarnategia ona da". Zuzendariak gaineratu duenez, "emaitzak oso interesgarriak izanen dira, ez soilik aztarnategiak asko ematen duela, baizik eta detaileei erreparatzeak tokia primeran ezagutzeko aukera ematen digulako".

Indusketaren ondoren analisiak egiteko garaia iristen da. Isotopo eta karbono 14 probak egingen dizkiete aztarnetako batzuei. Gainera, analisi antropometri-

koa. "Aztarna bakoitza garbitu, prozesatu, neurtu eta gero aztertua izan behar du. 98 hezurdura opatu ditugu. Horrek denbora asko eskatzen du. Aztarnategian lan egindako hilabete bakoitzeko laborategian ia hiru hilabeteko lana dugu". Aurtentan jende asko egon denez indusketan objektu asko berreskuratu dira eta guztiak aztertu beharko dituzte. Horrek guztiak balioko du jakiteko "garai bateko sakandarrak nola bizi

## Ate irekiak

Larunbatean, 17:00etan. Indusketara bisita eta, ondoren, egindako lanaren aurkezpena. Sakanan Donejakue bidearen berreskurapenari buruzko informazio gehiago emanen da.

ziren, zer egiten zuten eta zer gertatu zitzaizen hemen bizi zirenei".  
+www.guaixe.net

## Erdi Aroko hilerria



Hasierako mailetara iritsi dira eta han agertzen dena intereskoa izanendasortuzen garaiari buruzko datuak emanen dituelako. Maila horretan harritu dituena hilerriaren okupazioa oso aktiboa izan zela. Hilerriko indusketan erromatar garaiko mailatik gertu daudela azaldu digu Valle de Tarazagak. Agerian gelditutako toki batean, erromatar mailaren gainean zuloa egin zutela ikusi dute.

Hilerrian aurreneko lur emateak askoz ere soilagoak dira eta objektuak ere oso gutxi agertu dira. "Arri handirik ez dagoela badakigu". Hala ere opatu diren elementuak oso interesgarriak direla gaineratu du. Horien artean erromesen maskorra (Donejakue bide zaharra datatzeko laguntza eman) edo gerrikoko urreztatutako belarri bat agertu da hilerrian eta horrekestas handiko jendeari ere bertan lur eman zitzaiola adierazten du. Joan zen urtean urreztatutako

tako ezproia opatu zuten eta ideia hori berresten du. Hau da, Zamartzeko monasterioak erromesek aparte goi mailako jendea ere erakarriko zuela. Zamartzek "Iruñeko katedralarekin betidanik erlazioa izan zuenez maila altuko jendea izanen zela pentsatzekoa da". Analisisien emaitzen zain XI. mendeko lurperatzeak direla uste du Valle de Tarazagak. "Baina ez gara beharaino iritsi. IX. edo VIII. mendeko hilobiak baleude erromanizazioaren eta Erdi Aroaren artean dagoen eta ezer ez dakigun tartetarako buruzko datuak lortuko genituzke. Ezin dugu hipotesirik egin beharaino iritsi eta erromatar garaiko aztarnak opatu arte". Donejakue bidean joaten zirenetan eta Zamartzen lur eman zieten erromes gehiagoren aztarnak opatu dituzte ere Erdi Aroko hilerriko hasierako mailetan. Donejakue bide zaharra datatzeko laguntza emanen dute aztarna horiek.

## Gune erromatarra



Entitate gehiagoko harresiak azaldu dituzte aurtengo kanpainan, baina ohartu dira haiek zatiak ere berrerabiliak izateko eramanak izan zirela. Ohartu dira I. mendetik IV. mendera induskatutako espazioaren erabilera oso antzekoa zela. I. mendera iristeko lagin txiki bat induskatu dute. Kaskailuzko zorua mantentzen da, beraz hasierako funtzioarekin segitzeko nahia adierazten du horrek, azaldu digu Valle de Tarazagak.

Oso ongi kontserbatutako erretako etxe baten egurrezko egitura opatu dute. Etxea nolakoa zen zehatz jakiteko nahiko badakite: "erakuntzarako erabilitako elementuak, paretak non zeuden eta zintamaina zuten dakigu. Paretak dekoratzeko erabiltzen zen estukoa ere opatu dugu, gorritz eta berdez margotuta". Harrizko zokaloa zuen, egurrezko egitura eta hura adobe zegoen. Barruan zarpiatuta eta margotuta. "Eraikin erromatar

klasikoa. III. edo IV. mendeko egitura bat da. Horrek adierazten du garai hartan, inperioa dekadentzian egonda ere, hemen eraikuntzarako erromatar teknikak erabiltzen zuenik bazela".

Eraikina etxea izan daitekeela aipatu digu arkeologoak, baina administrazio edo erlijio erabilera baztertu gabe. Kristalezko objektuak, luxuzko zeramika puska, txanponak agertu dira. 268-270-272 urteetako txanpon ugari agertu dira. Jaitsiera baten ondoren, Constantino Handiaren txanponak ageri dira (315). "Deigarria da. Hau ez baita erromatar hiri bat. Teorian mansio bat da. Oso txikia izan beharko luke. Baina aztarnategiak 4 hektarea hartzen ditu ia. Landetxe bat baino gehiago zegoen hemen".

Gaineratu duenez, "indusketa egiten ari garen tokian egituraren erdiguenea egonen litzateke. Administrazioaileak edo inguruko gidarien

egoitza edo hemen aurreneko gunea egotea eta inguruan populazio txiki bat sortzea. Han abeltzainak, merkatariak biziko lirateke".

Opatutako objektu askoren kalitatea oso ona da, brontzearen elementu gutxi opatu dira. "Elkarrekin biziko, nahastuko ziren, baina zerbaitegatik hona erromatarak etorriko ziren. IV. menderaino egon ziren. Ez ziren lau katu izan. Hori guztia ezagutzeko ikertu eta aztertu beharko da. Dakiguna azalekoa eta oso historizista da".

Mosaikoak izan zirela badakite, teselak betelanetarako, kaskailu moduan berrerabiliak izan direlako. Teselak betelanetarako erabili zituzten garai batean. Batzuk morteroak elkartuta daude oraindik. Indusketako buruak aitortu digu agerian gelditu diren elementu batzuk oraindik ez dituztela ulertzen baina ikerketak argituzeko esperantza azaldu du.

etxeko aseguruetan  
**%35** era arteko  
deskontuak  
eta, gainera, etxetresna  
elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN

**MAPFRE ALTSASU**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 19 70 70**

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## Raul Goikoetxea Eskisabel

Iturmendi (1967-07-19/1988-10-24)  
XXV. urteurrena

25 urte gure oroimenean



**Zure familia**

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko  
11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua**  
zorion@guaixe.net-era  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora

# Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · [argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)

**GUAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

# guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en doan  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

### Higiezinak

#### LOKALAK

#### ERRENTAN EMAN

#### Azi Iturri Txokoa elkartea alokatzen da.

Lizarragako festetan, azaroaren 22an, 23an eta 24an. Gutxienez 600 €. Enkantea azaroaren 10ean arratsaldeko 17:00etan izanen da elkartean bertan.

### Ikastaroak

**AESEK ikastaro hauek antolatu ditu.** Enpresa blog eta orrialdeen sorrera, 30 ordu, urriaren 28tik azaroaren 25era; Ingelera C1 (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurreratua eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.

#### Shantala haur masaia.

Jaiotzetik 12 hilabeteko haurrei zuzendua. Lau sesioko ikastaroa. Azaroak 5, 7, 12 eta 14. Arratsaldeko 17:00etatik-19:00etara Kattuka haur eskolan (Arbizu). Interesatua bazaude edo informazio gehiago nahi izatekotan jarri gurekin harremanetan: telefonoz 948- 56 70 09, email: [kattukahaureskola@gmail.com](mailto:kattukahaureskola@gmail.com)

#### Altsasuko udal ikastaroen eskaintza.

Taillerrak: autoezagutza eta garapen pertsonala, ahalduz. Informazio gehiago [iortia@altsasu.net](mailto:iortia@altsasu.net), 948 56 42 72.

#### UGT sindikatuak antolatutako ikastaroak.

Psikomotritate geriatrikoa; Elektrizitatea II; Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzailea. Informazio gehiago 948 46 71 20.

#### IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu

**Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

#### Forem Navarra - CCOO ikastaroak.

Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

### Lehiaketak

**Banden lehia txapelketa.** Azkue fundazioak antolatzen du eta helburua euskal musika talde amateurrik onena saritzea da. Informazio gehiagorako [www.bandenlehia.com](http://www.bandenlehia.com). Azaroaren 1a arte.

**Gaztezero Berto Paper lehiaketa.** Hi eta hire munduak gaia hartuta 1-3 minutu arteko bideoak aurkeztu behar dira. Informazio gehiago: [www.gaztezero.com](http://www.gaztezero.com). Azaroaren 4a arte.

### Gaztezero Berto Paper lehiaketa.

Proposatutako lau argazkietako baten gainean bi zortziko txiki idatzi behar dira. Informazio gehiago: [www.gaztezero.com](http://www.gaztezero.com). Azaroaren 4a arte.

### Oharrak

**Bakaikuko elkartaren eguna.** Bazkide eta bazkide direndako ospakizuna hilaren 26an izanen da. Bazkariko txartelak 212era arte salgai Corka Urteagak, dendan edo elkarteko ordenagailuan. Helduek 22 €, haurrek 10 €.

**Patata operazioa.** Azaroaren 3an, igande goizean egiten dute Alegria de Iruñako kideen Hermitas de los Pobres egoitzarako patata bilketa. Urdian eta Satrustegi artean ariko dira.

**Argi ikastolari laguntzeko.** Laboral kutxa: 3035 0102 39 1020046142; Rural kutxa: 3008 0003 01 2598878821; Caixa: 2100 3695 18 2210009146; Kutxa: 2101 2505 16 0128446333.

**Haurren erditmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu.** Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

### Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: [www.euskonews.com/laguntza](http://www.euskonews.com/laguntza)  
[euskonews@euskonews.com](mailto:euskonews@euskonews.com), 943- 32 22 94.

**Inausketa nola egin - trukea.** Informazio gehiago [larrezabaldk@inigoaritz.com](mailto:larrezabaldk@inigoaritz.com)

**3MBk kontu korrontea zabaldu du.** Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

### Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela.

### Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com) eta [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com)

### Eskuratu zure beleixeguaixe txartela.

50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net).

### Nafarroako Ondarearen Defentsarako

**Plataforma laguntzeko.** Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

### Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta

**denda.** Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu

ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezitia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

### Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko

**boluntarioen kanpaina.** Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

### Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua

**Sakanan.** Sakanako Mankomunitateko Immigratio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesional, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahoko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzan, astearteetan Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigratio@sakanamank.com](mailto:immigratio@sakanamank.com) posta elektronikoa.

### Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo [gazteria@altsasu.net](mailto:gazteria@altsasu.net) helbidea). Adina: 12-30 urte.

**Izan zaituz Mintzakide!** Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru pertsonarekin biltzen da, asteen behin, ordu batez.

### JAIOTZAK

- Imran eta Nissrin Baizi Eddid, urriaren 3an Etxarri Aranatzan.
- Maren Mendinueta Perez de Villarreal, urriaren 8an Arbizun.

### HERIOTZAK

- Joaquin Senar Goldaracena, urriaren 16an Lizarragan.
- Maria Dolores Razkin Marin, urriaren 16an Altsasun.
- Consolación Unanua Navarro, urriaren 17an Dorraon.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Taldeak gustuko duena egitea aukeratzeko: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, [sakana\\_mintza@aek.org](mailto:sakana_mintza@aek.org) e-posta edo [sakanamintza.blogspot.com](http://sakanamintza.blogspot.com) ataria.

**Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu.** Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: [www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com) web gunean.

**Iparaldeko Ikastolak laguntzeko.** Bi kontu zerbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

**Garraio laguntzarako diru bilketa.** Sortzen ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduaren egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleek garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

## PILOTA

**IRURTZUN ONGI:** Asteburuan Nafarroako Kluben Arteko Pilota Txapelketako 2. jardunaldia jokatu zen. Irurtzunek Paz Zigan-

daren kontrako bi partidak irabazi zituen. Banaka Armendarizek 18-5 irabazi zuen, eta binaka Ongayk eta Mitxelenak 22-4.

## kirola &gt;&gt;

## Atletismoa

## Etxarrin korrika!

**SAKANAKO XIII. HERRI LASTERKETA-BURUNDESA SARI NAGUSIA BIHAR JOKATUKO DA, 17:00ETAN, ETXARRI ARANATZEN. AURRETIK, 16:00ETAN, KATEGORIA TXIKIKOEN PROBAK JOKATUKO DIRA.**

Bihar, lastailaren 26an, larunbatarekin, jokatuko da Sakanako XIII. Herri Lasterketa-Burundesak Sari Nagusia. 16:00etan kategoriatxikikoen lasterketak hasiko dira Etxarriko plaza inguruan, eta 17:00etan helduen proba (7 km).

Sakanako XIII. Herri Lasterketa Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta La Burundesak antolatu dute, Etxarriko komertzioen eta jatetxeen babesarekin eta ondoko entitateen laguntzarekin: Dantzaleku Sakana Atletismo Kluba, Etxarri Aranazko Udala eta Etxarriko Larrañeta, Udaberri, Karriestu eta Hartzabal elkarteak.

## Proba herrikoia

Sakanako Herri Lasterketa proba herrikoia dela nabarmendu zuen Amaia Gerrikoagoitia teknikariak, eta helburua atletismoa bulkatzea dela. Halaber, Sakanako herriak ezagutarazi nahi dira, aurtan Etxarri Aranatz. "Edozeinek hartu ahal izango du parte, proba irekia baita, baina bereziki sakandarren partaidetza bulkatu nahi dugu" gaineratu zuen teknikariak. Horren isla, Etxarriko proba Sakanako Atletismo Koparako-Lasa Kirolak Saria baliagarria izango da.

Bide batez, proba azaroaren 10ean jokatuko den Behobia-Donos-



**Aurkezpena.** Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitia, Etxarriko alkate Joxi Bakaikoa, Etxarriko kultur teknikari Amaia Ijurre, Udaberriko Nerea Martinez, Larrañetako Pedro Gonzalez, Karriestuko Izaskun Ijurre, antolakuntza lanetako Iñigo Razkin eta La Burundesako ordezkari Javier Fonseca izan ziren asteazkeneko aurkezpenean.

tia lasterketa prestatzeko aproposa izango dela nabarmendu nahi izan zuten. "Aurreko urtean 116 sakandar aritu ziren Behobian, eta ea aurtan Sakanako Herri Lasterketan parte hartzerantz animatzen diren" gaineratu zuen Gerrikagoitia. Aurreko urtean 95 korrikalari aritu ziren Sakanako XII. Herri Lasterketan eta Jose Javier Cuadrado zaldibiarra nagusitu zen. Antolakuntzak antzeko parte-hartzea espero du: helduen proban 100 kirolari inguru eta haurren kate-

gorietan 60 inguru. 18:15ean helduen sari banaketa egingen da eta ondoren auzatea egingen da.

## 2.250 metroko zirkuitua

Nerea Martinezek azaldu zuenez, Etxarriko plaza erdigune hartuta 2.250 metroko zirkuitua antolatu da Etxarri Aranatz. Plazatik aterako dira korrikalariak. Kale Nagusitik barna Larrañeta kaleraino iritsiko dira eta bertatik Malkorramendi aldera joko dute. Aldapasoron buelta hartu eta bide-

## Sariak eta zozketak

Kategoria txikietan, kategoriatxikikoen lehendabiziko hiru rek dominak jasoko dute. Proba nagusian, lehenengo hiru rek, gizonetako eta emakumetako, trofeoak jasoko dituzte. Baita ere lehenengo juniorrek eta lehenengo beterrak. Sakanadarren kasuan, lehendabiziko hiru sakandarrek, emakumetako eta gizonetako, trofeoak jasoko dute. Halaber, proba absolutuko irabazleak eta lehensakandarrek, gizonetako eta emakumetako, bi pertsonetako afari bana jasoko dute, 4 afari guztira, ondoko jateketan: Borda, Aritzalko, Iturrieder eta Derry.

Horretaz aparte, korrikalari guztien artean ondoko sariak zozketatuko dira: Etxarriko campingean eta Zugain jatetxean bi pertsonetako afaria, Peio Goikoetxea masajistak eskainitako 4 masaje eta Etxarriko denda eta komertzioek emandako produktuen lotekak.

berri nazionalatik errotondaraino helduko dira, han plazarantz jotzeko. Helduek 3 itzuli emango dizkiote zirkuituari. Trafikoa moztuko da eta Foruzainak arduratuko dira trafikoa gidatzeaz.

Proba antolatzeko jende askoren laguntza behar da eta antolakuntzak gogo biziz eskertu die herritarrei eta bertako talde eta eragileei, emagodu ten laguntza. "Eragileen lagun-

**Helduek izena emateko azken eguna:** [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)

Helduen lasterketan izena emateko derrigorrezkoa da aurretik izena ematea. Gaur da azken eguna, 14:00 arte. [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web gunean eman behar da izena. Txip horia dutenek 10 euro pagatu beharko dute eta alokairuzko txipa dutenek 11 euro. Kategoriatxikikoen dohainik dute izena ematea eta probaren egunean bertan egin beharko dute inskripzioa.

## Kategoria txikiak

Aurrebenjaminen proba 16:00etan hasiko da (200 metro), benjaminena 16:05ean (400 metro), kimuena 16:10ean (800 metro) eta haurrena 16:20an (1.200 metro). Kadeteak helduekin batera ariko dira baina ibilbide laburragoa egingo dute (4.500 metro). Sari banaketa 16:45ean egingen da.

tza ezinbestekoa da eta eskertzekoa. Horrek ekitaldi gehiago egitea animatzen du" nabarmendu zuen Joxi Bakaikoa alkateak. Javier Fonsecak gogoratu zuen La Burundesak urte asko daramatzala Sakanako Herri Lasterketa babesten, probak arrakasta duela, kontentua daudela eta proba laguntzen jarraitzeko asmoa dutela.

## Arrakastatsua

225 KORRIKALARIK DISFRUTATU ZUTEN VI. ONDDO LASTERKETAN, HORIETATIK 55 EMAKUMEK



Azurmendi, onddo saskiak jaso zituzten bi korrikalarekin.

Oso pozik daude Dantzaleku-Sakana atletismo klubekoak. Larunbatean Altsasun ospatutako VI. Onddo Lasterketa (6,6 km) arrakastatsua izan baitzen oso. Proba herrikoiena da hau, ez lehiakorra. Ez da klasifikaziorik egiten eta izena ematea dohainekoa da. Helbu-

rua zapatilak jantzi eta besterik gabe Altsasuko paraje ederretan barna korrika egitea da, atletismoa eta kirola sustatzeko. Guztira 225 korrikalari aritu ziren, aurreko urtean baino 35 korrikalari gehiago, gehienak sakandarrek, baina inportanteena emakumeen pre-

sentzia izan zen. "Joan zen urtean 39 emakume ateraziren korrika egitera eta aurtan 55, eta horietatik asko neska gazteak. Ederra izan zen horrenbeste emakume gure kamisetarekin korrikan ikustea. Izan ere, hori da gure helburua, atletismoa eta kirola sustatzea. Eta emakumeean bereziki. Oso pozik gaude!" gaineratu dute Dantzalekukoak.

Atletismo festa ederra izan zen larunbatekoa. Eguraldia, zoragarria. Basoiti, Dantzaleku eta ondoko parajeak, batere lohirikgabe eta inoiz baino politagoak. Eta bertatik eta onddo artean korrika egitea, sekulako plazera. Proba bukatzerakoan korrikalariak kamiseta jaso zuten opari, freskagarriak eta berlinak dastatu zituzten eta antolatzailak 100 produktu lote zozketatu zituzten, tartean 4 onddo saski eder: Guztia, antolatzailak eta korrikalariak, kontentua.

## Esker ona

Antolatzailak proba antolatzeko euren laguntza eman zuten boluntarioek eta klubeko kideek egingandako lana eskertu nahi dute. 25 pertsona aritu ziren lanean.

## Omenaldia Martinezi



Proba hasi baino lehen minutu bateko isilunea gorde zen Esteban Martinez Lopezen alde. Sociedad Deportiva Alsasuko atletismo sekzioko monitorea eta entrenatzailea eta Dantzaleku-Sakanako bazkide eta laguntzailea izan zen urte askotan. Dantzaleku-Sakanako Juantxo Azurmendi lehendakariak omenezko plaka bat eman zien senitartekoei.

## 34. Eskola Arteko Krosa

Onddo Lasterketa baino lehen, prebenjinetatik hasita eta haurren mailara bitartekoak 34. Eskola Arteko Krosean aritu ziren. 90 neska-mutiko aritu ziren. Guztiek batidua jaso zuten opari.

## Emakumeendako Atletismo Eskola martxan

**Ostiralero, azaroaren 8an hasita, Altsasuko Atletismo Pistan**

Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilguneak, Mank-eko Kirol Zerbitzuak eta Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak emakumeendako atletismo eskola antolatuko dute bigarren bez. Azaroaren 8tik hasita eta maiatzaren 16ra bitartean, ostiralero, 17:30etik 19:00etara gauzatuko da eskola, Altsasuko Dantzalekuko atletismo pistan. Mikel Lakuntza izango da monitorea. Atletismo eskolarekin korrika egiteko teknika eskaini nahi zaie emakumeei. Bestalde, eskolarekin emakumeen artean harremana sortu daiteke, lasterketara eta beste elkarrekin joateko.

## Izena ematea

Mankomunitateko Kirol Zerbitzura jo behar da, azaroaren 4a baino lehen (948 464 866 telefonoa edo [kirolak@sakana-mank.com](mailto:kirolak@sakana-mank.com) posta elektronikora). Prezioa: 50 euro.

## Mendia

## Arbizuko bordetara ikastolekin

Sakanako ikastolen mendi taldeak irteera antolatatu du iganderako. Etxeko txikienekin batera Arbizuko bordetara joatea da asmoa (7 km, 400 metroko altuera alde). Botak eta galtza luzeak jartzea gomendatzen dute eta haur aulkitorik ez eramatea. Hitzordua goizeko 9:00etan jarri dute, Etxarriko ikastolan. Irteeraren ondoren bazkaria egingen da Arbizuko elkartearen. Horretarako izena eman beharko da ikastolako idazkaritzan, ostiral eguerdia baino lehen. Hurrengo irteera azaroaren 17an izanen da, Nerbioi ibaiako iturburura. Ibilbideak irekiak dira eta edonor joan daiteke.

## Kirolegia



Emakumea kirola egiten.

## Altsasun kirolak gora

Zelandi kiroldegiko bazkideen kopuruak gora egin du (1.813) eta kirol ikastaroetan apuntatu direnen kopuruak baita ere (781)

Altsasuko kirol instalazioak kudeatzen dituen Atabo udal enpresak azaldu duenez, hasi berri den 203-2014 ikasturtean kirol ekitaldietan izena eman dutenen kopuruak %5 egin du gora Altsasun. Guztira 781 inskripzio egin dira, aurreko ikasturtean baino 40 pertsona gehiago. Horietatik 16 abonatuak dira eta 24 abonatu gabekoak.

Bestalde, udako kanpainaren balorazio positiboa egin dute Atabotik. 2012an bazkideen kopuruak behe-eragin zuen eta aurtengo udako kanpainari esker Zelandi kiroldegiko bazkideak 1.813ra igo dira, aurreko urtean baino %5,46 gehiago. Gainera, uda sasoiaren dantzalekuko igerilekuen erabilera eta saldutako bono eta sarreren kopuruak ere gora egin du. Kanpainaren helburua erabiltzaileen kopurua handitzea zen eta ez diru sarrera gehiago lortzea. Horretarako, abonatu eta sarreren prezioa izoztu ziren eta Madrigo Gobernuak inposatutako BEZaren igoera, %8tik %21era, bere gain hartu zuen Atabotik.

Atabotik adierazi dutenez, "Sakanak, eta bereziki Altsasuk, duen egoera ekonomiko larri kontuan hartuta, hazkunde hau are esanguratsuagoa da".

## ESKAINZA BERRIAK

Zerbitzua indartu eta zabaltzeko konpromisoarekin, Atabo fisioterapia eta elikadura zerbitzuak jartzeko azterketak egiten ari da.

## Pilota

## Orain Retegi Bi

EZKURDIAK 6 TANTOTAN UTZI ZUEN MENDIZABAL III.A. ASTELEHENEAN RETEGI BI GAINDITU BEHARKO DU LAU T'ERDIAN JARRAITZEKO

## Lau T'erdia. Final zortzirenak:

Retegi Bi - Ezkurdia (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)

Joseba Ezkurdiak errebantxa eder-rra hartu zuen eta lau t'erdian jarraituko du: atarikoan Aitor Mendizabalek arbizuarra 10 tantotan utzi eta gero, partida hartan egindako akatsetatik ongi ikasi eta igandean Sebastian Gonzalez

ordezkatzeko duen Ezkurdia Mendizabal III.aren gainetik pasa egin zen, inolako gupidarik gabe. Lezioa ongi ikasita eraman zuen arbizuarrak, eta 6 tantotan utzi zuen Mendizabal, errebantxa bikaina hartuta. Orain, Lau t'erdiko final zortzirenetan, Retegi Bi du zain. Partida astelehenean jokatu da, Tolosan.

Kaiolan espezialista den Retegi Biren kontra aritu beharko da Ezkurdia. Partida konplikatu aurreikusten da, baina igandean



Ezkurdiak bikain jokatu zuen.

bezala jokatzeko badu, Retegik lan asko egin beharko du Arbizuko txapelketatik kanpo uzteko.

## Trinketea

MUNDUKO TRINKETE TXAPELKETA URUGUAYN

## Murgiondo, zilarrezkoa

Lastailaren 13tik 19ra Trinkete Mundiala hartu du Uruguayk. Eskuzko modalitatean eta erremintan - pala motza, emakumezkoen paleta argentinarra, gizonzkoen pala argentinarra... - jokatu da Mundiala. Estatuko selekzioarako hautatu zuten Koldo Murgiondo eta etxarriarra Trinketeko Binakako Esku Pilotan lehiatu da, Uruguayko Mercedes hiriko trinketearen. "Oier Gurutzealde atzelariak partida guztiak jokatu ditu. Lehendabiziko partidari Unai Martikorena igoarra aritu zen aurrean, baina jokatu diren beste guztietan ni arituna izan" adierazi digu Uruguaytik etorri berri den Koldo Murgiondok.

Etxarriarrarendako esperientzia polita izan da Mundialean aritzea. 5 selekzio lehiatu dira Eskuz binakako Trinkete Mundialean. Hasieran ligaxka jokatu zuten, denak denek kontra, eta bi talde onenak finalerako sailkatu ziren. "Lehendabiziko partidari Unai eta Oierrek Argentinaren

kontra irabazi zuten. Gero Frantzia faboritoaren kontra jokatu genuen Oierrek eta nik, eta galdu egin genuen. Baina Txileren kontra eta Mexikoren kontra irabazi genuenez, Frantziaren kontra finala jokatzeko sailkatu ginen" kon-tatu digu Murgiondok.

## Frantzia garaile

Finalean erraz gailendu zen Frantziako bikoa, 15-6 eta 15-4. Koldo Murgiondo eta Oier Gurutzealde zilarrezko dominarekin konformatu ziren. "Beraiek ziren faboritoak eta merezita irabazi zuten" adierazi digu Murgiondok. Frantziako selekzioa izan da Munduko Trinkete Txapelketa irabazi duena, urrezko 4 domina lortuta. Atzetik sailkatu dira Argentina eta Uruguay. Espainiar Estatua 5.a sailkatu da txapelketan: zilarrezko domina jaso zuen eskuz binakakoan eta brontzezko 3 domina larruzko paletan, eskuz banakakoan eta emakumezkoen paleta goman.

Pozik baina nekatuta itzuli da



Koldo Murgiondo.

Murgiondo. "Denbora asko pasatu dugu trinketearen. Gure partidak ez zirenean, beste taldeen partidak ikustera joaten ginen. Beraz, ez dugu izan askoz gehiago egiteko astirik" onartu du aurrelari etxarriarrak. Uruguaytik bueltan, tarte baterako trinketea utzi eta ezker paretako frontoian ariko da orain. Aurrerago, GRAVN txapelketan, atzera ere trinketeari ekingo dio.

## Motoziklismoa

## Burua Japonian

AUSTRALIAKO SARI NAGUSIAN ERRETIRATU EGIN BEHAR IZAN ZEN ALEX MARIÑELARENA

Munduko Motoziklismo Txapelketako Australiako Sari Nagusiak zeresan ugari eman du. Dunlop gorpulek ez zuten beharrezkoa zen mailarik ematen Phillip Islandeko zirkuituan aritzeko eta Moto 2 mailan lasterketa 13 itzulietara jaitsi zuten. Alex Mariñelarenak (Bluens Avintia, Kalex) pistara egokitzeko arazoak izan zituen. Lasterketan 26. postutik aterazen, eta erorikoak eta aurrerapenak tarteko,



Mariñelarena Australian. UTZITAKOIA

13. postuan kokatu zen lasterketan, puntuazio postuetan, hain zuzen. Baina, tamalez, erorketa izan zuen eta proba utzi behar izan zuen. "Sentsazio onekin hasi gara, baina lasterketa motza zenez, arriskatu beharra genuen eta gaizki atera zaigu, 5 bueltaren faltan erori naizelako. Triste nago, erritmoa

genuelako eta Top 15ean sartzeko aukerak genituelako. Baina beno, orain Japonen pentsatu behar dugu. Nahiz eta zirkuitua ez eza-gutu eta 0tik hasi behar izan, ea gauzak ongi doazen eta puntuatzeko aukera dugun" adierazi du irurtzundarrak. Moto 2 mailan Pol Espargaró (Kalex) gailendu zen eta Munduko Txapelketako liderra dugu, Scott Redding-i (Kalex) 16 puntu aterata.

## Etzi Japoniako Sari Nagusia

Japoniako Motegi zirkuituak hartuko du Munduko Motoziklismo Txapelketaren 17. eta azken aurreko proba, Japoniako Sari Nagusia, igandean (zuzenean Tele 5 katean). Ikusmina handia da, oraindik ez baitago ezer erabakia Moto GPn, Moto 2an eta Moto 3an.

## Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

9. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 2 - IRUÑA 2**  
Bikain zelairatu ziren lakuntzarrak. Goikoetxeak Lagun Artea aurreratu zuen, baina defentsa akats baten ondorioz Iruñak berdindu zuen eta segidan 2. gola sartu zuten. Aldaketekin dominatzaera pasatu zen Lagun Artea eta Ruben Morillasek berdintzea lortu zuen.

Sailkapena >>

1. San Juan ..... 19 p  
13. Lagun Artea ..... 11 p

Asteburuko jardunaldia

**PAMPLONA LAGUN ARTEA**  
(Igandean, 17:00etan, Lizasoainen)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

6. JARDUNALDIA

**ALTSASU 1 - ERROTXAPEA 0**  
**ETXARRI ARANATZ 1 - LAGUN ARTEA B 4**  
Lehen zatiko 27. minutuan Berasategik Altsasuren aldeko gola sartu zuen eta ondoren Altsasuk abantaila hori mantentzen jakin zuen. Orain arte Altsasuk ez du partidarik galdu. Etxarri eta Lagun Artea B taldeen arteko derbyan hasieran Etxarri izan zen jaun eta jabe eta tarte horretan iritsi zen Etxarriren gola. Baina hortik aurrera ezin izan zuten euren jokoa behar bezala gauzatu. Etxarriko erdilari baten akatsaren ondorioz Lagun Artea Bk berdintzea lortu zuen. Bigarren zatian Lagun Artea B-koek hiru kontraeraso bikainetan Etxarriko atean haztatzea lortu zuten eta Etxarri ezin izan zuen ezer egin. Lagun Artea B-k 1-4 irabazita despeditu zen partida..

Sailkapena >>

1. Beti Kozkor ..... 13 p  
5. Altsasu ..... 11 p  
12. Lagun Artea B ..... 5 p  
14. Etxarri Aranatz ..... 4 p

Asteburuko jardunaldia

**BERRIOZAR - ALTSASU**  
(Larunbatean, 2:00etan, Berriozarren)  
**LAGUN ARTEA B - DONEZTEBE**  
(Larunbatean, 16:00etan, Lakuntzan)  
**ETXARRI ARANATZ - AMAYA**  
(Igandean, 15:45ean, Etxarri Aranatzen)

## Futbola



## Sakanako Futbol 8 Txapelketa abian

Kimuen mailako txapelketan 10 talde ariko dira

Mank-eko Kirol Zerbitzuak antolatuta, asteburu honetan hasiko da Kimuen Futbol 8 Topaketa. Topaketa txapelketa moduan jokatu da baina ez da sailkapenik egingo, helburua txikiengandak kirola eta futbola sustatzea baita. 10 talde ariko dira eta bi bueltetara jokatu da. Lehendabiziko bueltan 9 jardunaldi jokatu dira eta itzulikoan beste horrenbeste. Partidak igandetan jokatu dira, Altsasuko Dantzalekuko futbol zelaian.

## 1. jardunaldia

Igandean, Dantzalekun


10:30etik 11:30era: Urdiain - A.K.T. (Arbizu)

11:30etik 12:30era: Etxarri Aranatz - Dantzaleku

12:30etik 13:30era: Lagun Artea - Txartel

11:30etik 12:30era: Sutegi - Kaixo  
12:30etik 13:30era: Tipi Tapa - Sayas

## Pistako txirrindularitza



## Europako Txapelketak: Hodei Mazkianan 12.a keirinean

Europako Pistako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira asteburuan Apeldoormeko belodromoan, Herbehereetan. Hodei Mazkianan txirrindulari altsasuarra finalerdietarako sailkatu zen, eta azkenean 12.a sailkatu zen keirinean. Espainiako selekzioak zilarrezko domina bat eta bi brontzezko lortu ditu.

## Areto futbola

## Entrenatzaile onena delako

IMANOL ARREGIK ASTELEHENEAN JASO ZUEN ARETO FUTBOLEKO ENTRENATZAILE ONENAREN SARIA

Imanol Arregik, Magna Nafarroa Xota areto futboleko entrenatzaile irurtzundarrak, astelehenean jaso zuen Ramon Cobo saria Las Rozaseko Futbol Hirian, Ohorezko Mailako areto futboleko aurreko denboraldiko entrenatzaile onena izendatzen duena. Bere ibilbideagatik eta bere portaera bikainarengatik saritu dute Arregi. Irurtzundarrak 13 urteotan egindako lana eskertu nahi izan dio, horrela, Espainiako Entrenatzaileen Komiteak. Izan ere,

Ramon Cobo sariak aurreko denboraldiko entrenatzaile onenak saritzen ditu eta Imanol Arregirekin batera aurten Renneseko entrenatzaile baina iaz Errealeko entrenatzaile Philippe Montanier, Elchekeko entrenatzaile Francisco Escribá eta Jumillako entrenatzaile Juan Francisco Gea saritu zituzten eta baita beste 5 teknikari ere.

“Ilusio handiarekin jaso dut saria, jakinda egindako lanagatik dela. Pozik nago”, adierazi du Ima-



Arregi Montanierrekin, sari jasotze ekitaldian. XOTA

nol Arregik. Saria talde guztiari zabaldu nahi izan du, taldekako kirolean bakarrari ematea ez delako bidezkoa, bere ustez.

Bestalde, Magna Xotak 3-2 irabazi zion Jaen Paraisori. Gaur Llevant Manacorren kontra jokatuko du Irurtzungo taldeak, 21:00etan.

## Areto futbola

## Futsal Sakana Txapelketa abian

MOMENTUZ 7 TALDEK EMAN DUTE IZENA ETA LARUNBATEAN HASIKO DA LIGA, UHARTE ARAKILEN

Sakanan areto futbola bulkatzeko asmoz, Irurtzungo Xota areto futbol klubari lotutako Leandro Fernandez jokalaria ohi eta entrenatzaileak, www.deportesnavarra.es entitatearen bidez, Futsal Sakana 2013-2014 areto futbol txapelketa antolatuko du, hainbat entitatearen laguntzarekin, Uharte Arakilgo Udala, Lacturale eta Guaixe tartean. Sakanan afizionatuen areto futbol txapelketa indartzeko sortu dute txapelketa. Fernandezek txapelketa egitasmoa aurkezterakoan aipatu zuenez, “nahi duten taldeek eman dezakete izena: herriko koadrilek, lagun koadrilek... inportanteena areto futbolean airtzeko ilusioa da”. Deialdiarekin Sakanako 7 taldek egin dute bat eta larunbatean hasiko da txapelketa.

### Partidak Uharte Arakilen

Futsal Sakana I. Sakanako Areto Futbol Txapelketa larunbatean hasiko da. Partidak Uharte Arakilgo pilotalekuan jokatuko dira, larunbatetan.

### Taldeak

7 taldek eman dute izena Futsal Sakana Areto Futbol Txapelketan: Auzomotojorik (Etxarri), Etxarriko Gaztetxie, Arbizu K.T., Bunker (Altsasu), Iturmendi, Bil Toki (Altsasu) eta Racing San Miguel (Uharte Arakil). Lehen jardunaldia bihar jokatuko dute.

### 1. jardunaldia

**16:00etan:** Auzomotojorik-Etxarriko Gaztetxie

**17:00etan:** Arbizu K.T. - Bunker

**18:00etan:** Iturmendi - Bil Toki

**Atsedena:** Racing San Miguel

[www.futballsakana.es](http://www.futballsakana.es)

Txapelketako informazio guztia, araudia eta izena ematea barne. Facebook eta twitter sare sozialetan baita ere. Harremanetarako: Leandro (670 595 098 telefonoa) edo [info@futballsakana.es](mailto:info@futballsakana.es). Talderen bat oraindik ere txapelketan parte hartu nahiko balu, dei dezala.



Irurtzundarrak Magna Xotan jokatzen. UTZITAKOIA

**PIKUROCK**  
**HAMILET**  
**DEF CON DOS**  
**GATIBU**  
**LINTON TAUN**  
**TXIMELETA**  
**KARPAN DJ BULL DJ JO TA TXO**

IRURTZUN 2013 AZAROAK 2 LARUNBATA 20.30ETAN SARRERAK 15€AURRETIK / 20€BERTAN  
 SARRERAK IRURTZUN: PIKUXAR ETA MARTXUETA - ETXARRI: LEKUONA - ALTSASU: LURRAZPI - LEITZA: GAZTAÑAGA - IRUÑA: MESON - TXANTREA: AKELARRE  
 AUTOBUSAK SAKANAN JAIBUS - LEITZA 21.00 > 06.00 - IRUÑA (MESON) 20.00 > 05.00 - 21.00 > 06.00 - 22.00 > 07.00

[WWW.PIKUROCK.COM](http://WWW.PIKUROCK.COM)

Logos: aht desobeditu, PIKUXAR, GARA, berria, GURKORRE, GARA, euskalerriarria, bat

## Martina, Nafarroako film labor onena

**X**IV. Iruñeko Zinema Jaialdiak ostiral gauean banatu zituen bere sariak eta haietako bat Urko Mauduitendako izan zen, *Martina* lanagatik. Alternatib sailean estatuko film laburrak aurkeztu ziren eta haien artean lau egile nafarren lanak zeuden. Epaimahaiak zuzendari irurtzundarraren lana saritu zuen, "animazioaren bitartez haur ipuineta hurbiltzeagatik eta narrazioari originaltasuna eta freskotasuna emateagatik".

Mauduitek "oso pozik" jaso zuen saria. "Garrantzitsua da. Titulua bera ezaguna egiteaz aparte, film laburra gehiago ikustea ekarri du". *Martina* eta bere lagun ilargiaren istorioa gehien bat gaztelaniaz ari dira proiektatzen eta irurtzundarrak aurreratu duenez, eguberriren aurretik Iruñean euskaraz ikusteko aukera izanena da. Sakanan ere ematea nahiko

luke egileak. Gainera, Etxarriko eskolatik errepasakoda, emanaldia eskaintzeaz



aparte, marrazki bizi-dunak nola egiten diren erakutsiko die hurrei Mauduitek. Nazioartean zabaltzeko Martinak ingelesez ikasi berri du eta batera eta bestera mugituko da banatzaile baten laguntzaz. Bitartean zuzendaria proiektu berrietarako finantzazio bila dabil.

## Antzerki zikloa super-heroien batzuen bisitarekin despedituko da

**Gaur, 21:30ean Irurtzungo Kultur Etxean**

**T**rokolo antzerki taldearen Super Heroien obrak itxiko du lastaileko antzerki-aldia. Lur planetatik emakumeen egoerari buruz iritsi zaizkien albisteengatik kezkatuta, Mugarik gabeko Super-heroien Elkarteko Super-heroiek Lurrera ikertzaile-talde bat bidaliko dute, egoera horren jatorria, arrazoiak eta eraginak aztertzeko. Curriculumak begira-

tu ondoren, hautaketa-batzordeak eginkizun garrantzitsu hori gauzatzeko aukeratutako Super-heroiak Caléndula Oficianalis, Pizpireta Reta eta Txipuka Rodriguez izatea erabaki du.

Haien lana despeditu ondoren hiru Super-heroien ausartek beren bizipenak kontatuko dituzte. Edukiz, umorez, samurtasunez eta, jakina, begirunez betetako ikusizun honek emakumearen egungo egoera azalduko die ikusleei, ikuspegi baikor eta kritikoa batetik.

## Gloria, bailaoraren ama

**Choni flamenko konpainiaren "La gloria de mi madre" flamenko antzezlanaren larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean**

**C**honi flamenko konpainiak umorez betetako antzezlanaren ekarriko du bihar, larunbatean, Altsasura: *La gloria de mi madre*. Flamenko tradizioaren munduan nabarmentzen hasi den bailaora baten amaren istorioa kontatzen du antzezlanak. Gloriak, dantzariaren amak, bere alabaren-

gan proiektatzen ditu berak gaztetasunean bete ezin izan zituen amets eta ilusio guztiak. Alabari aholkuak emango dizkio eta umorez betetako hamaika egoera eta nahasmen sortuko ditu. Flamenko tradizioaz gozatzeko aukera emango du antzezlanak, umorearekin tartekatuz. Zalantzarik gabe, eta flamenkora gerturatuz, larunbat arratsalde bikaina pasatzeko plana.

*La gloria de mi madre* antzez-



lan arrakastatsua da eta estreinatuz zenetik Choni flamenko konpainia ez da gelditu. + [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## Eta zuekin guztiekin... Bigotes Band!

**Movimiento Bola taldearen antzezlan musikatu gaur, ostiralean, 22:30ean, Olaztioko Kultur Etxean. Sarrera: 4 euro aurretik eta 6 euro egunean.**

**M**ovimiento Bolak musikaz betetako antzezlan batek ekarriko du gaur Olaztira: *Bigotes Band*. Taldea musika estilo oso ezberdinetatik etorritako musikari oso bereziek osatzen dute eta "*En diferido Tour*" izeneko bira berria prestatzen ari dira. Nola moldatuko dira elkarrekin musikari berezi hauek? Zein musika eskainiko dute? Zein estilokoa? Ados jarriko ote dira? Umorez betetako antzerki musikatuaz gozatzeko aukera eskainiko du gaur Olaztik.



### Sinopsia

"Ia gizakiak" diren pertsona batzuek osatzen dute Bigotes Band taldea. Aurpegiz ezagutzen zuten

elkar, baina ez gustuz eta belarriz. Nork bere aldetik egin zuen bidea: bat Camela taldeko gitarra jotzaila izanzen, beste bat 1528. postuan gelditu zen "La voz" lehiaketaren castingean eta beste batek Faletari ematen zion jana, txaloak jotzen zizkion bitartean. Patuak berriz ere elkartu ditu. Talde eta kantari ospetsuekin egon dira agertokietan: Metallica, ACDC, The Beatles, George Clooney, Sergio Ramos, Leonardo Dantés eta Andyrekin baina Lucas gabe. Egun, "en diferido tour" izeneko bira berria prestatzen ari dira. Umorez eta maitasunez betetako ikuskizuna. + [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## bazterretik

**Jose Luis Asensio**

### Asterix eta Piktoak

2009. urteaz geroztik ez dugu ezer berririk jakin Asterix eta Obelix buruz, ez da liburu ofizialik argitaratu. Azkenekoak gainera ez ziren zaleen oso gustukoak izan. Baina hilabete honetan gertakizun bitxia izango dugu eta hau aldatzeko aukera dago. Jakingo duzue, Asterix eta Obelix, Albert Uderzo eta René Goscinny egileek sortu zituzten 60. hamarkadan. Euren lehenengolan ekarria ikaragarria izan zuten eta gaur egun mundu osoan ezagunak dira bi Galiarrak eta baita beraien txakurtxoak. 100 hizkuntzetan irakur daiteke gaur egun Asterix eta Obelix, baita euskaraz ere. Goscinny 1977. urtean hil zen eta geroztik Uderzok bakar bakarrik Asterixen abentura gehiago argitaratu ditu, gidoiak ere berak sortuz. Gogoratu Goscinny izan zela gidoiaria aurretik eta Uderzok marrazkiak egiten zituela. Hala ere irakurlegoaren iritzi ez du inoiz Goscinny-

rekin lortutako maila berdindu Uderzok bakarrik. Baina urriaren 24an Asterixen abentura berri bat argitaratuko da, eta oraingoan liburua arrakastatsua eta kalitatezko abentura izateko aukerak dituela uste da. Asterixen klasiko berri bat izango dela diote jakitunek, asko landu baita gidoiak. Honen arrazoia Uderzok lehenengo aldiz beste profesionalen eskutan lan guztia utzi duela da. Lanaren pisua beren bizkarrean jaso duten marrazkigile eta gidoiaria Frantzian oso ezagunak diren Jean-Yves-Ferri (gidoiaria) eta Didier Conrad (marrazkigilea) izango dira. Didier Conrad "Fluide Glacial" aldizkarian egin zen famatua, Espainian "El jueves" aldizkariaren antzeko argitalpena Frantzian. Jean-Yves-Ferri ordea, Manu Larcenet marrazkigilearekin egindako kolaborazioekin lortu du bere arrakastan nire ustez. Berez polemika ugari izan du hartutako erabaki honek, Uderzok aspal-

di esan baitzuen Asterix berak bakarrik egingo zuela, ez zuela bera hil ondoren inork Asterix gehiago argitaratzerik nahi. Hau da, Hergek Tintinekinegin zuen bezala, ez zuen beste inork bera hil ondoren Asterixen abentura berriak idazterik nahi, momentu guztietan kontrola izateko Asterix eta Obelixen bizietan. Baina azkenean eta dirua bitartez egonda, ideia aldatu eta argitaletxeari baimena eman zion berak ezer egin gabe abentura gehiago ateratzeko, eta naiz eta oraindik bizirik egon, azkeneko abenturan Uderzok ez du parte hartu. Konturatu bazarete, atea zabalik du argitaletxeak, Uderzohil ondoren Asterixekin nahi duena egiteko. Liburu berriari buruz, ezer gutxi dakit oraindik. Gure heroiek Eskoziako antzinako biztanleekin izango dituztela abenturak, Piktoekin. Iazur liburu berri honek garai berri baten hasiera izango dela Asterix eta Obelixen abenturetan, zaleok beren abenturak ez zapuztea espero dugu.

**Gaur, ostirala 25, 20:00etatik aurrera**

Jaso ditugun hamaika zorion eta postasun seinaleak eskertzeko,  
**Baxerri Erretegian**  
Arbizuko Txistor Pintxoan  
V. Lehiaketako pintxo irabazlea eskainiko du festa giroan

**Pintxo + kiantza edo sagardoa: 2€**

Asteburuetan, 9:30etik aurrera, Baxerri Erretegian

• Kafa + opila  
• %50eko deskontuarekin  
• Ogi ezberdinak salgai

**OGI BERRI**

## Dantzan ongi pasatzeko aukera

Larunbatero, 17:00etatik 18:00etara, Irurtzongo eskoletako gimnasioan



Euskal dantzak maite dituzula eta norbaitekin gustura dantzatzeko zenukeela. Dantzatzeko ongi pasatzeko asmo bakarrarekin sortu da talde bat Irurtzunen. 45 eta 67 urte bitarteko 10 bat pertsonak eman dute izena eta otsaileraino, larunbatero biltzeko asmoa dute. Ez da ikastaroa, elkarrekin ongi pasatuz dantza egiteko nahia ase nahi da. Besterik ez. Horregatik, ez da beharrezkoa larunbatero joatea. Ateak zabalik daudenez, larunbatean nahi dutenek joateko aukera izanen dute.

## Etxarriarrak Bertsoaroan

Nafarroako Bertsozale Elkarteak Iruñeko Udalarekin elkarlanean antolatuko zikloa da Bertsoaroa. Gaur hasi eta hiru astez bertsoaritzaz Iruñeko agendan izanen da. Hasteko, atzo, Iruñeko Gurutze Plazako Institutuko Aretu Nagusian bertso-saioa izan zen. Alaitz Rekundu gai-jartzaile dela Julio Soto, Beñat Gaztelumendi, Erika Lagoma, Alaitz Martin, Odei Barroso eta Eneko Lazkoz ariko dira kantuan. Azaroaren 7an gazteekin eginen den bertso saioan Joseba Beltza etxarriarra izanen da gai-jartzailea.



Larunbatean, 19:30ean Etxarri Aranazko frontoian. Fran Idareta, Haize Berriak banda, Irurtzongo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko abesbatzak

Euskararen jatorri mitologikoan sakondu zuen Fran Idareta eta horretan oinarrituta ikuskizun musikala ondu du: *Taupadak*. Mustutze bikoitza egin zuen larunbatean, Iortia kultur gunean izan ziren guztiak gozaraziz.

Doinu tradizionalatik abiatuta banda eta abesbatzendako har-

monizazio berri, aberats eta modernoak sortu ditu Idareta, Alberto Gonzalez moldatzailearekin batera. Harmonizazio lan eder- rra. *Axuri Beltza* kantari, esaterako, emakumezko bakarlaritza bat hasten da kantatzen, baina kantaren bestelako aldaera bat goi-erregistroan. Ondoren musikariak eta koraleko kideak gehitzen dira kanta tradizionalaren bertsio berritzaileak eginez.

Akordeoilari irurtzundarraren laguntzaile fidel izan ziren

Haize Berriak banda eta Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzak. Gorka Hermosa (bandoneoia), Joaquín Taboada (pianoa) eta Gari-koitz Mendizabal (txistua) izan zituzten laguntzailez bait pasartetan. Omenaldi eta eskertzen tartean, Irurtzongo akordeoilariak eskenatokira gonbidatu zuen. Er- nika Zelaia, eta lore sorta ederra eskainiz, altsasuarrak egindako ibilbide artistikoa aitortu zuen. + [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## Sakanako arte garaikidearen azoka

Azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean

Ostiralean zabaldu zituen ateak II. Altsasuko Arte Azokak. Sakanako artisten lanen ikuspegia izateko aukera aparta eskaintzen du Iortia kultur gunean ikusgai dagoen erakusketak. Igandean artistetako batzuk euren obra salgai jarri zuten jendaurrean eta zenbait pieza saldu zituzten. Azokak irauten duen bitartean lanak ikusteaz aparte haiek erosteko aukera izanen da.

Sortzaileek (26 sakandar eta 5 gonbidatu) adierazteko bide ezberdinak aukeratu dituzte: bideoa, pintura, eskultura (burdina, zura,



harria) edo instalazioa. Artistek denetariko teknikak baliatu dituzte euren lanak sortzeko: collagea, akuarela, olio, serigrafia, akriliko, inpresio digitala, xilografia...

Errealismoa, abstraktua... aniztasunaren isla ederra. Ibarreko arte garaikide azoka Hego Euskal Herrian ekimen aitzindaria da. + [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

**LA GLORIA DE MI MADRE**  
CHONI CIA, FLAMENCA

URRIAK 26, LARUNBATA - 20:00 DANTZA-ANITZERKIA

**JACK EL CAZAGIGANTES**

IGANDEA 27 17:00

**AMOR**

OSTIRALA 25 21:45 IGANDEA 27 20:00

**EL LLANERO SOLITARIO**

OSTIRALA 25 22:00 IGANDEA 27 20:10

## Non erabili

**JULENE KORTSETEGI  
ETA LENTZERIA**

**ALTSASU**

50 €ko erosketa batengatik %10eko deskontua.

**JON CORDON TAXIA**

**IRURTZUN**

%10eko deskontua.

**JAVIER AIZPUN  
HARATEGIA**

**UHARTE ARAKIL**

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

**MARTIARENA  
GAZTANDEGIA**

**UHARTE ARAKIL**

% 5eko deskontua.

**BERGARA CENTRO  
OPTICO**

**AGURAIN**

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

**LURESU**

**ALTSASU**

% 10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

**NORTE ERLOJUDENDA**

**ALTSASU**

%7ko deskontua produktu berrietan, konponketetan eta aldaketetan salbu.

**MENDIGAIN  
URDAIAZPIKOAK**

**LAKUNTZA**

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

**URREZKOA  
BITXIDENDA**

**IRURTZUN**

Bitxietan 100 €ko erosketa egitean, %15eko deskontua.

**URRUTIA HARATEGIA**

**IRURTZUN**

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

**KIROLDEGIKO  
TABERNA**

**ARBIZU**

Bazkarietan edo afarietan kopa doan.

[www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)-en zerrenda osoa ikusgai

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 38%	euria: 20%	euria: 8%	euria: 45%	euria: 85%	euria: 48%	euria: 20%
Min: 15 Max: 19	Min: 14 Max: 21	Min: 12 Max: 21	Min: 13 Max: 19	Min: 8 Max: 11	Min: 5 Max: 13	Min: 6 Max: 16

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Ebkarri A.	25.7	7.1	3.9
Altsasu	24	8	17
Aralar	18	7.9	11.3
Urbasa	21	6	0

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
26	3	10	17

**Acrycolor SISTEMA BERRIA** **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

**Urriko bazkide zozketa**

**URRIKO SARIAK:**  
 1-12 LITRO LACTURALE ESNE ERDIGAINGABETUA+2 SARRERA EKAINBERRI+ XOTA IKUSTEKO 2SARRERA  
 2-TOALLA BAT+AQURIUM SARRERA+XOTA  
 IKUSTEKO 2 SARRERA  
 3-KATXIPORRETA KAMIXETA+AQURIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA  
 4- KATXIPORRETA KAMIXETA+AQURIUM SARRERA+ XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

# >> 11 galdera

**Rosalía Moratal Enguix**  
**Iharraren bizi den margolaria**

Testua: Maialen Huarte Arano



Elkarrizketa osorik: [www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en).

**1.Noiztik zara margolari?**  
 Gaztea nintzenetik naiz oso behatzailea. Behin objektuak, paisaiak edo pertsonak nire irudimenean ditudanean islatzen ditut nire margolanetan. Gaztetan paisaiak egiten nituen batez ere. Gero erretratuak egiten hasi nintzen.

**2. Zer da gehien margotzea gustatzen zaizuna?**  
 Erretratuak egiten oso iaioa naiz. Jendearen aurpegiera erraz islatzeko gai naiz eta irudi politak egiten ditut.

**3. Margolaria afizioz edo ofizioz?**  
 Pasioa da niretzako margotzea. Plazera sentitzen dut paisaiak, argazkiak zein erretratuak margotzen ditudanean.

**4. Autodidakta zara?**  
 Inoiz hartu ditut eskolak, baina autodidakta izateak sortzen zizkidan mugak gainditzeko. Oso gazte hasi nintzen pinturan murgiltzen. Parisera egin genuen bidaia batean sentituen benetan lotura pinturarekin, zenbait museok eta artisten lanek aho bete hartz utzi baininduten. Pinturaren teknikan sakontzen hasi nintzen. Iruñean eta Lizarran zenbait dendek nire lanak erakusten zituzten eta hortik iritsi ziren lehen enkargoak.

**5. Zer da gehien eskatzen dizutena?**  
 Paisaiak eta erretratuak. Duela 10-15 urte erretratuaren boom-a izan zen. Hilabete bospasei eskatzen zizkidaten. Orain asko jaitsi da eskaera.

**6. Zein teknikarekin aritzen zara?**  
 Aquarelak erabili ditut asko eta

urte askoan, batez ere, paisaiak egiteko. Akrilikoarekin moldatzen naiz hobekien eta oleoa ere asko erabiltzen dut.

Ez daukat estilo definiturik. Gustoko dudana margotzen saiatzen naiz, ez besterik. Hori bai, gehienetan eredu batekin aritzen naiz, ez dut irudimenik apenas erabiltzen, nire ahalmen sortzailea mugatua baita. Sormen guztia nire seme-alabek hartu dute, eurek gehiago erabiltzen dute kreatibitatea eta gutxiago eredu.

**7. Familian guztiak zarete margolari?**

Guztiok egiten dugu artearekin zerikusia duen zerbaite. Semeak eremu itxiak erabiltzen dituzte bere sormena baliatuz dekorazioak egiteko, batez ere tabernak. Alabak margolanak eta eskulanak egiten dituzte, dekorazioari begira, horiek ere eta irudimena landuta. Guztiz estilo ezberdinak ditugu: nire klasikoagoa da, disziplinatuagoa eta aldiz beraiena, modernoagoa eta askeagoa.

**8. Eskulanak ere egiten dituzu?**

Alabarekin batera egiten ditut zenbait pieza. Nik forma ematen diet eta berak margotu egiten dituzte, kolorea jartzen die. Maché papera erabiltzen dugu horretarako. Krisketak ere egiten hasiak gara, modan jarri diren arroparako dekorazioa ere bai.

**9. Erakusketa askotan parte hartutakoa zara?**

Nire lanekin bakarrik oso gutxitan egin ditut erakusketak. Irurtzunen eta Arakilen, ez besterik. Ikasleekin ere saiatzen naiz egiten, baina gainerantzean ez dut halakorik egiteko ohiturarik. Iruñeko eta Lizarrako denda batzuetan izaten ditut lanak erakuslehoian. Orain seme-alabekin Iruñeko Sanduzelai auzoan denda bat irekitzeko asmoa daukat. Gure lanak eta pinturarako materiala saldu eta ikastaroak eskaintzeko asmoarekin ireki nahi dugu saltoa. Eguberriak baino lehen dena prest egotea espero dugu.

**10. Irakasle ere izan zara?**

Pintura eskolak eskaini ditut. Nire eskolak ez dira teknikak eta teoriak ikasteko, baizik, ohikoak izan daitezkeen margolanak egiten laguntzeko. Irurtzunen eta Arakilen eman ditut. Gustora eta sentsazio onarekin. Haurrekin ere egin ditut ikastaroak eta berezia da eurekin margolanak sortzea. Oso irudimentsuak dira eta originaltasuna gailentzen da edozein teknikaren gainetik.

**11. Hezkuntzan ematen al zaio behar lukeen garrantzia pinturari?**

Sormenari muga asko jartzen zaizkio. Haurrei teknikak eta teoriak erakusten dizkiete. Gutxiago ausartzen dira irudimena praktikan jartzen. Haurrek berezkoa duten ahalmenari ez zaio probetxurik ateratzen. Hezkuntzan aldatuta sakonak behar dira eta horietako bat pinturan izan daiteke.

**2014ko egutegia zure taldearen argazkiarekin**

**Poster Egutegiak**

25 ale	54 €
50 ale	70 €
100 ale	95 €

kolorez, 150 g papera, 300 x 490 mm  
 Garraioa barne

**Koadrila, kirol talde, elkarte... ospakizun. Eska eizaiguzu zure egutegia!**

**Guaixe KOMUNIKAZIOA**  
 948 564 275  
 argi@guaixe.net